

ttüpi-ttapa


1996ko uztailak 4 • 185. zenbakia

Elkarrizketa

Amaia ALTXU

Erreportaia

Kukumiku 96



**ERREMONTEAREN
HARROBIA
DONEZTEBEN
DAGO**

**MUEBLES
AMETS**
mobleak orokorrean
BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

Sekulako eskeintza
Besaulkiak prezio eta
kalidade hoberenean



**UZTAILEAN, ABUZTUAN ETA IRAILEAN,
LARUNBAT ARRATSALDETAN ITXITA**



Haize Egokitua dohainik edo 150.000 Pta.ko deskontua

Ero batzuk zaretela diote. Ez zaretela segundu bakar bat ere geldirik egoten, egun osoan harat honatean zabilzatzela. Jende gazteak sekulako sasoia eta buru-arina izaten duzuela.

Bainan zuk badakizu ez dela horrela. Zure lagunak dira duzun gauzarik garrantzitsuen eta ez zenituzke galdu nahi ezta deusengatik ere.

Horrexegatik aukeratu duzu Polo: saihets indartuak, ABS, Airbag bikoitza, guzia agertzen duen atzeranzko ispilua, direkzio-zutabe teleskopikoa... Ekipamendu, erosotasun, ahalmen eta zabalatasun handienari ukorik egin gabe, gozo-goza egon zaitezten.

Zeren zure lagunak, zure Poloak eta zuk zeronek bide luzea duzue aitzinean.

Badago Polo bat 1.259.000 Pta. aitzin

SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea • © 450354 / 450759
D O N E Z T E B E

Polo
Zure Poloak eta zu

DATUAK.....

❖ *Amaia Iturendarra da. Duela 9 urte, Jone, Belen eta Arantzarekin batera, ordurarte beti gizonetzkoek egiten zutena egin zuen: inautetako asteartean joareak jantzi eta Iturendik Zubietara joan gizonetzko joaldunekin batera.*

❖ *Bere ustez gauza hauek pentsatu eta egin egin behar dira.*

❖ *Joareak jotzen, bertze edozein lan edo aktibidadetan bezala, meritua ongi egindako gauzak duela pentsatzen du, eta ez egilearen sexuak.*

Amaia ALTXU:

«Zerbait egiterakoan inportanteena ez da egilearen sexua»

EGUN HAUETAN POLEMIKA SORTU DA IRUNEN SAMARTZIALETAN EMAKUMEEN PARTE HARTZEA DELA ETA. ZUK NOLA GOGORATZEN DITUZU ITURENEN JOAREAK JOTZEN ATERI ZINETEN LEHENBIZIKO ALDIA?

Ba, aitzinetik inolako planteamendurik egin gabe ateri ginela. Bezperan gogotu eta egin, bertzerik gabe. Gero, joareekin buelta egin eta ondotik ohar-tu ginen zerbait fuerte xamarra egina genuela. Dena dela, erran behar da ere, gure inguruan genituen mutilekin ongi sentitu ginela.

EZ ZUTEN PEGARIK PARATU?

Ez, ez zuten pegarik paratu. Gehienbat da lehenbiziko tragu hori gogorra egiten dela eta kritika aunitz jaso genituen. Egia erran, nik ez nien inportantzia haundirik eman.

NOLAKO KOMENTARIOAK EGIN ZITUEN JENDEAK?

Bueno... bazen denetarik. Batzuk ea feministak ginen, bertze batzuk... 'ze, neskak zer ttuzue, barrabilekin Itunan?'... eta horrelako astokeriak. Bainan tira, ez genien



inportantzia haundirik eman eta nire ustez horrela egin behar da.

HORI GUZTIA GERTATU ZENETIK URTE BATZUK PASATU DIRA. ORAIN NORMAL IKUSTEN DA EMAKUMEEK ERE JOAREAK JOTZEA?

Orduan lau neska hasi ginen eta gaur egun ere segitzen dugu lau-

bortzek. Nire ustez orain ez da trabarik jartzen emakumeren batek joareak jotzera atera nahi baldin badu. Aurten, adibidez, Itundik Zubietara neska bat joan da eta bere bikotea mutila zen. Gauza hauek normaltasunez hartu behar dira. Oroitzen naiz garai hartan zenbait komunikabide modu tendentziosan sartu zela tartean, feminismoa eta horrelakoak planteatuz. Beharbada kanpotik begiratu gertaera ho-

rrela ikusteak badu zentzurik, bainan niretzat ez. Guk sentitu eta egin egin genuen, ahalik eta hobekien egitera saiatuz, gainera.

BIZIPEN HARTATIK IKASI ZENUTEN GAUZARIK INPORTANTEENA ERE HORI DA, EZTA?

Neretzat bai. Sexua aparte utzita, gauza batean hasterakoan ahalik eta hobekien egiten saiatzea. Joareak jotzen badira mutil batzuk bertzeak baino trebeagoak, eta neskekin ere, berdin gertatzen da.

► *“Garai hartan zenbait komunikabide modu tendentziosan sartu zen tartean, feminismoa eta horrelakoak planteatuz. (...) Guk sentitu eta egin egin genuen, ahalik eta hobekien”*



Bigarren urtez antolatu du LANGARRAK 13 eta 14 urteko gaztetxoendako lehiaketa hau, eta arras arrakastatsua suertatu da aurtengoan ere. Adin horretako 18 bikotek hartu dute parte jokatu diren hiru kanporaketa eta finalean, eta guztiek ere, erran beharra dago, iaz bezain maila ona edo hobea erakutsi dute.

TESTUA :
 AMAIA ELOSEGI
 ARGAZKIAK:
 LANGARRA

KUKUMIKU 96 MALERREKAKO LANGARRA EUSKARA TALDEAREN KULTUR LEHIAKETA

Gazteek euskararekin duten identifikazioa bultzatu nahi da lehiaketaren bitartez





b

ortz arlo ezberdinetako galderak eta jokoak izan ditu lehiaketak; bortz arlo horiek, kultura orokorra, geografia, kirolak, ikuskizunak eta trebetasun jostetak izan dira. Kanporaketak Beintza-Labaien, Sunbillan eta Eratsunen jokatu ziren eta jendetza ugari bildu zen guztietara, baita Doneztebeko finalera ere.

Lehiaketa honen bidez partaidetza bultzatu nahi izan da eta partaide guztiek jaso dute opariren bat. Opari guztiak, Doneztebeko banketxe, kutxa eta dendek dohainik emanak izan dira.

Lehiaketa honekin, bertze ezerean gaintetik, nerabezaroan dauden gaztetxoengana hurbildu nahi izan du Langarrak, euskararen presentzia eta erabilera ziurtatuko duten gazteengana, alegia. Izan ere, gazteak izanen baitira, zalantzarik gabe, gure hizkuntzaren jarraipena bermatuko dutenak. Are gehiago, oraindik orain, euskararen inguruan dagoen gutxiespen sentimendua, hau da, euskararekin inora joan ezin denaren sentimendua nagusi den eskualde honetan, Langarrak arras interesgarritzat jo du, gazteen

hizkuntzarekiko identifikazioa beltzatzea eta jorratzea. Gauza jakina da, adin honetako gazteak euskaraz hazi eta hezi direla, baina adinari dagokionez, oraindik ez dute erizpide garbirik beren bizitza erabakitzeke (hizkuntzaz den bezainbatean, bizimoduari dagokionez...). Horregatik, lehiaketa honen bidez Langarrak, etorkizunearn, bizimodua euskaraz egiteko bidea zabaldu nahi izan die, hizkuntzarekin duten identifikazioa sendotzeko, euskara prestijiodun hizkuntza izan dadin.


LANGARRAK HIRU URTE

Langarra Euskara Taldea duela hiru urte sortu zen, Malerrek euskara karrikaratu eta esparru guztietan normalizatzeko helburuarekin. Malerreka, eskualde arras euskalduna izan arren (ia %

90), garai batean jasan dako presio eta marjina-zioaren ondorioz, arras gutxietsia dago hainbat sektore eta adin multzotan. Jende aunitzek, euskarak Belatetik harago joateko ez duela balio uste du, eta euskararekiko gutxiespen sentimendua nagusi da pertsona horiengan. Guzti horri buelta eman, eta euskarak bizitzako arlo guztietan funtzionatzeko balio duela erakutsi nahi du Langarrak, hizkuntza, euskara, geure ondarea dela alegia, geure identifikazio arlo garrantzitsuena. ildo horretatik, kontzientiazio ekimenak, kultur ekitaldiak, salaketak, etabar burutu eta burutzen ditu, gizartearen eragile, kontzientziaren erneazle bezala.

Finalean aritutako bikoteak hauek dira, geratutako postuaren arabera:

- ❶ Patxi Olazar eta Javier Otermin (Doneztebe)
- ❷ Gaizka Elizalde eta Arkaitz Vicente (Sunbilla)
- ❸ Maria Bañares eta Ainara Mutuberria (Doneztebe)
- ❹ Mainer Irazoki eta Mainer Bidegain (Doneztebe)
- ❺ Pilartxo Mitxeltoarena (Doneztebe) eta Maria Arretxea (Sunbilla)



Hemendik aitzinera ere, Malerrekako biztanle guztiak Langarraren ekimenean parte hartzera gonbidatuak daude, «denok elkarrekin bakarrik lortuko baitugu erabat euskaraz bizitzea». ■



TELEFONO GORDAILUA: NA-1324/85
 TELEFONO FRANKO ITUNDUA: 34/79
 TIRADA: 6.300 ALE
 DISTRIBUTARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
 BERRIKO ETXEO PLAZA, 1
 31780 BERA
 TELEFONO: 63 11 88
 FAXA: 63 12 91

Redakzioa: Joxemanuel Iri...
Publizitatea: Miren Kar...
Argitaletxea: Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor...
Argitaletza: Joxemanuel Irigoien...
Argitaletza: Amaia Goia...
Argitaletza: Pello Ape...
Argitaletza: Juainas Paul, Kristina...
Argitaletza: Bittori Telletxea...
Argitaletza: Joseba Azpiroz...
Argitaletza: Juan Arozena, Juana Mari...
Argitaletza: Ainhoa Mutuberria, Iban...
Argitaletza: Txema Aldabe, Pello Etxe...
Argitaletza: Txema Urroz, Patxi Otxan...
Argitaletza: Ixabel Maia, Josune Etxe...
Argitaletza: Pablo Mendiburu, Joseba...
Argitaletza: Alizia Olaizola, Margari...
Argitaletza: Mikel Irazoki, Mixel...
Argitaletza: Jacqueline, Elixabet...
Argitaletza: Garbiñe Maiz, Oskar...
Argitaletza: Alberto Sansiñena...
Argitaletza: Apezetxea, Aitor Arozena...
Argitaletza: Boan...
Argitaletza: EHNE Nafa...
Argitaletza: Patxi Lasa, Mikel Bezunar...
Argitaletza: Joxe Javier Etxeberria...
Argitaletza: Xabala...
Argitaletza: Graficas Ona...
Argitaletza: ttitapak ez du bere gain har...
Argitaletza: derrigorrez, aldizkarian adie...
Argitaletza: ko erranen eta eritzien eran...
Argitaletza: zunik...
Argitaletza: **Argitaletza:** Bera...
Argitaletza: Goizueta, Areso, Baztan...
Argitaletza: Zubiri, Zugarramurdi eta...
Argitaletza: ko udalak, Bortzirietako...
Argitaletza: kara Mankomunitatea...
Argitaletza: errekako Zerbitzu Mankomu...
Argitaletza: a, Zugarramurdiko Akelarre...
Argitaletza: tea...

Argitaletza: dizekari honek Nafarroako...
Argitaletza: ernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

061: Larrialdi Zerbitzuen Funtzionamendua aztergai

Egin beharrak eta eskaintzak, oso zabalak ditu



Tomas BELZUNEGI
SOS-Navarrako zuzend.

061a ez da telefono arrunta, edozein larrialditan zerbitzu orokorra eskaintzen baitu bere atzetik. Edozeinek zenbaki hau (edo 088 edo 112) markatzean, Osasun Larrialdiko Zerbitzua, Foruzaingoa eta Suhitzaltze Salbamendu Zerbitzua koordinatzeke gune den SOS Nafarroako langile batek jaso eta erantzun egokia emateko ardura duen sendagile koordinatzaile bati pasatzen dio zuzenean. Osasun larrialdi baten aurrean Nafarroan laguntza jarraituko 45 puntutan diren medikuak eta OLT/EDVak mugiarazten ditu, baita Larrialdiko Osasun Garraioaren Sarea eta Iruñeko ambulanzia medikuduna ere, eta harremanetan jartzen da Ospitaletako Larrialdi Zerbitzuekin, behar den osasun laguntza koordinatzeko. Halaber, bertan sartzen dira larrialdiko laguntza Odol Bankuarentzat eta sostengua Organo Emate Birlanaketa Sarearentzat. (...) Orokorrean, telefono bakar batetik laguntza eskatzen duenari era osatu, azkar eta eragingarri batez baliabide eskaintza osatua ematen zaio.

Hobetu beharko zen funtzionamendua



Maria ASTIER
Herriarra. Etxalar

Osasunbidearen Larrialdi Zerbitzuen funtzionamendua ezagutzeko tokatu zaidanez, bi oharpen egin nahi nituzke:
 1.- Bizitza arriskuan dagoen larrialdi batean, denbora gehiegi joaten da 061era deitu eta medikua etorri bitartean. Horren arrazoia begibistakoa da: herri eta baserrien sakanbanatze geografikoa. Eta gainera, tarte horretan bertze larrialdi bat suertatuko balitz, atentiditu gabe gelditu beharko zuten.
 2.- Anbulantzia behar den kasuetan, Bortzirietan bederen, guttitan erabiltzen da hurbilen dagoena (Lesakako DYA). Eta jakina, ambulanzia zenbat eta urrunago egon orduan eta denbora gehiago joaten da larrialdia atentiditu bitarte. Eta batzutan gehiegi, batez ere bizitza bera arriskuan baldin badago.
 Ikusiak ikusita, ez naiz batera harritzen jende aunitzek larrialdi kasuetan nahiago izatea zuzen-zuzenean hurbilen dagoen ospitalera bere kontura joatea, 061era deika hasi beharrean.

061aren arazorik ez izateko, zuen laguntza behar dugu



Maite LACALLE
Malerrekako Osasun Tald.

061 telefonora Larrialditan bakarrik deitu behar da, eta ez biharamunean konpontzen ahal diren kasuetan. 061 Iruñean dago eta osasun langileekin 'busca' baten bitartez konektatzen dute berehala, guri mandatua emateko. 061era deitzeakotan, arras garrantzitsua da etxeko telefonoa eta helbidea edo etxearen izena ematea, baita eriak dituen sintomak argi eta garbi erratea ere, espanturik gabe. Telefonoa eta helbidea erranez gero, guri abisatuko digute. Urruti dagoen baserri batera joan behar denean, eskertzen dugu bidegurutzetara batera ateratzea horrela bidean ez galtzeko. Azkenik, kontutan hartu larrialdi batean Zentrotik kanpora joatea suertatzen zaigunean, eta batez ere urruti baldin bada, tarte horretan Zentroa hutsik geldituko dela. Maiz gertatu zaigu, bidean ginela, bertze urgutzia haundiago baterako deitu digutela Zentrorra edo bertze leku batera. Hortaz, arazorik ez izateko, zuen laguntza eskatzen dugu.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratatutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☛ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA



Emakumezkoak Sanferminetan ezpatadantzari?

Estitxu FERNANDEZ

Doinua: Egoñaren zortzi
puntuakoa

Lesakarra naiz baina ohituretan ezin omen naiz atera dantzaria naiz baina dantzetan uzten naute alde batera objetiboki ikusiz dauka sexismoaren tankera zaletasuna aukera trebetasuna berbera baina emakumeak gera zubi gainean antzeste hutsa bertze pertsonen papera sentimenduen arabera da ez sexuen arabera.

Garai bateko gizarte hura sexista izateagatik zubi gainean gizonzkoek dantzatu zuten bakarrik nik ez nuke nahi hori aldatu ezin daiteke jadanik baina gizonz jantzirik nahi dunak antzestu soilik aukera behar du aurretik ezkertiarrek ta liberalak direla oihukaturik hemen aunitzek hori izatea zer den ez daki oraindik.

Aresoko Kultur Eguna

Ekainaren 2an ospatu zen Areson Kultur Eguna. Bertan egon zirenak ikusi zituzten, urtean zehar herrian egiten diren zenbait ekintzaren fruituak. Udaletxean, maila handiko eskulanak ikusteko aukera eduki genuen. Erakusketa honetan eskolako umek parte hartu zuten. Zaborrarekin egindako jostailuek erakutsi zituzten. Beraiei kurtsu honetan esplikatu zaie zer egin dezaket zaborrarekin, eta nola mantendu behar dugun garbia gure herria. Artisauek ere egon ziren, kafea xigortzen, buztzingintzarekin, saski eder batzuk erakusten eta zenbait emakumek egindako laboreak han egon ziren ikusgai.

Herriko umek dantza egin zuten. Batzuk trikixia joaz giro ederra jarri zuten, ama batzuk prestatutako bazkariaren ondoren. Hauek bukatu eta ondoren, herriko mutilak parte hartu zuten soka-tira saio batean, Arraitz eta Arraiotzen kontra. Konbinatu bat ere egin zen. Merienda goxo bat eduki zuten kirolariek bere indarrak frogatu eta gero. Guraso elkarteak bere aldetik ahal zuten guztia egin zuten antolakuntzako lana betetzeko, Kultur Taldekoei lagunduz. Pake-Toki eta Larrea elkarteek ere parte hartu zu-

ten festan. Dena prest edukitzeko lan asko egin zuten. Horrek eskatu zien borondate handia eta antolakuntza ona. Ikusten den bezala gogoia dagoenean gauzak errex egiten dira. Egun polita pasa genuen Aresoko herritarrek eta inguruko herrietatik etorritako jende guztiek. Baina beti egon behar da norbait kontra egiten duena eta esatea trixtea iruditzen bazaigu ere, Aresoko Udalak ez zuen parte hartu nahi izan egun honetan eta, herritarrek herritarrentzat prestatutako jai batean laguntza ukatzen badie, jakin beharko dute non uzten ari diren denon herria.

ARESOKO KULTUR TALDEA



Xan: ez zaitugu ahantziko

TTIPI-TTAPAN irakurto diat Xan, bihotz min handi batekin Errotak hiri egin daukan omena edo gutuna. Zer erran gehiago? Dolu min bera dugula sentitzen denek hemen hire lagunek. Ez, ez zautzugu ahanzten, eta ez ahantziko, hilak eta ez bertzeak. Zuen sakifizioaren etsenplua gidari bide beretik jarraitzen gaituk eta jarraitkiko, hil edo bizi, gure herraren jabe, guziak libre elgarretaratu artean. Guzieri bihotz zolatik gure

anaitasuna.

ZAHARRA, SARA.



Hau ez da Espainia, ezta Frantzia ere

Tourra gure bailaratik pasatuko dela, izenburuan daien aldarrikapena behin eta berriz agertzeko prest agertu behar dugu; gure burua eta hemengo errealitatea, bertze aldetik hainbatetan ixildua eta ixilarazia, ezagutzera eman behar dugu muduaren aitzinean. Euskal Herriak gatazka luze eta gogorra bizi du, espainiar eta frantziar estatuekin, hain zuzen. Estatu hauek dira gure nazio eta hizkuntz eskubideak zantpatzen dituztenak, herri bezala onartu nahi ez gaituztenak, gure garapen sozial eta ekonomikoa tratatuz eta haien menpeko eginez; eta nola ez, errepresioaren eta presoaren zein errepresaliatuen gaia pil-pilean dagoen honetan Tourrak eskeintzen digun aukera ezin dugu pasatzen utzi. Herritar guziak animatu nahi zaituztegu, bai kontzentrazioetan, bai ibilbidean, ikurrinekin zein bertze ikur adierazgarriekin gurekin batera parte hartzera.

BAZTANGO
EUSKAL HERRIA ASKATU

ALZURI

- ☛ Sukalde tresneria eta opariak
- ☛ Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA



Tel.: 450 133

451 541

Faxa: 450 334

DONEZTEBE

APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario de Noticias 96-VI-22

«Emakume gizarajoa... ez dut bizitzen segitu nahi».

Marcelino Larretxea
Diario de Noticias 96-VI-22

ekonomia alibiatzeko behar du izan landa turismoak, eta ez kapitala dutenen inbertsioak bideratzeko».

Juan Martin ALEMAN
Bertiz Partzuergo Turistikoko Landa Etxeen elkarteko presidentea
Ardatza 96-VI-21

«Bi turismo eskaintza daude. bat honen beharrean gaudenok eskaintzen duguna, eta bertzea, leku gehiagotan egiten dena, eta indarreko jendeak bere inbertsioak bideratzeko erabiltzen duena. Bertako jendearen

11 GALDERA LABUR

◆ Txupinazora joaten haiz?

❖ Libre baldin badiat behinpin bai.

◆ Sanferminetako egunik preziatuena?

❖ San Fermin eguna.

◆ Napoleonak dantzatzeko problemarik izanen da aurten?

❖ Inongo problemik ez, dantzari eta bandaren artean ez dugu problemik orain.

◆ Biharamonean dantzatzeko goiz erretiratzen haiz?

❖ Bai, orain goiz joaten nauk baina hasieran berandu, astelehen pixar bat izaten nian Sanfermin egunean.

◆ Kapitaina izanik gehiago ligatzen duk?

❖ Ez, lehen bezala, batere.

◆ Peñen egunean Onin errekan akabatuko duk?

❖ Ez, normalean uretik eskautzen saiatzen nauk.

◆ Imajinatzen duk emakumerik ezpatadantzari bezala?

❖ Egia erran ez.

◆ Eta norbait horretarako prest balego?

❖ Polemika piztuko diat baina gaizki ikusiko nikek.

◆ Noiz arte kapitain?

❖ Hori kapitainak berak ikusi behar dik. Bertze bizpahiru urtez aritzea espero diat.

◆ Berbenetan dantzatu edo ostatur ostatu ibili?

❖ Ostatur ostatu ibiltzea nahiago diat, dudik gabe.

◆ Aukeran, Zubigainekoa dantzatu edo Brasilera salsa ikastaro batera joan, gastu guziak ordainduta?

❖ Orain arte bezala segituko nian, Zubigainekoa dantzatur.



Xabier PORTU
Lesakako ezpatadantzarien kapitaina



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA

Dia % Autozerbitzua deskontua

KONPARATU PREZIOAK
EZ DUZU BERDINIK AURKITUKO

Prezio baliagarriak 1996ko Uztailaren 2tik 15era

<p>112,-</p>	<p>88,-</p>	<p>149,-</p>
<p>709,- Kiloa 203 Protan.</p>	<p>659,-</p>	<p>134,- Litroa 278 Protan</p>

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA

Bera

San Jose Zahar-Etxea larunbatean inauguratu zuten

Berrogeita zazpi lagunendako lekua du eta dagoeneko bertan bizi dira hogeita zortzi adintu

AITOR AROZENA

Larunbat honetan, ekainak 29, inauguratu dute ofizialki herriko Zahar-Etxe berria. Ekitaldian, herriko eta Bortzirietako udal ordezkariekin batera, Fernando Puras Gizarte Ongizate kontseilaria egon zen.

Alkatearen erraetan, "gustora gelditu gara lanarekin eta hasierako aurrekontutik ez da pezetarik ere igo". Etxea egitea 210 milioi pezeta gosta da eta mobleak ordaintzeko bertze 30 milioi ordaindu dira.

Bakarkako 20 logela, 10 logela bikoitz eta monjendako bertze 7 egin dituzte, baina "momentuz 28 dira bertan bizitzeko izena eman dutenak eta dagoeneko etxe berrian daudenak".

Konstruktorea Guillermo Ibargoi izan da, arkitektua Miguel Aiape eta arkitektu teknikoa Jose Luis Oiartzabal.



Zia auzoko ur-hornidura egitea da Hirurteko Planean Udalak aurririk duen lanik haundixkoena

Arg.: Joxemanuel

86 milioiko aurrekontua duten lanak eskatu ditu udalak Hirurteko Planaren barnean

Oсотara 86.242.000 pezetako aurrekontua izanen duten lanak aurkeztu dizkio udalak Nafarroako Gobernari Hirurteko Planaren barnean.

Lanik haundixkoenak, Ziako ur-hornidura (31.464.000 pezeta) eta lehen fasean egindako bide-

en moldaketa (31.640.000 pta) izanen dira. Hauetaz gain, Zalain industrialdeko eta Bidasoaren eskuinaldeko kolektoreak egitea (6 milioi), herrigunean, Sara, Urruña, Askain, Ziburu, Agerra eta Biriatu karrikak eta parkeak asfaltatzea

(7.883.000 pta), Kaxerna karrikako argiteria egitea (5.219.000 pta) eta Legia karrika monjen eskolaren aitzinean, Iparralde eta Julio Caro Baroja karrikak zolaberritzea (4.036.000 pta) izan dira Herriko Etxeak aurkeztutako eskarriak.

ttipi-flash

Dirulaguntza ikastetxeei

Eskola orduz kanpoko ekitaldiak egiteko Rikardo Barojak 89.000 pta, Toki Onak 233.000, Jesusen Bihotzak 94.000 eta Labiagak 160.000 pta jaso dituzte Nafarroako Gobernutik.

Selektibitatea

Toki-Ona insitutuko ikasleen %87ak gairitu du unibertsitatera pasatzeko proba.

Ur-depositoa

egiteko Suspelteki inguruan Udalak zuen 800 m²ko lur eremua, Jose M^a Aranibarrek Suspelan zuen 1.154 m²ko batekin trukatuta du.

Guardiazibilaren

okupazioa salatzan zuen mozioa onartu du Udalak, HB eta EAko zinegotzi baten botoez

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

Errekalde ostaturia

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — © 63 07 63

AHORRO-BERRI

janaridenda

Legia 4 • BERA

Igande goizetan irekia

Lesaka

ttipi-flash

❖ **Igeriketa ikastaroak**

Uztailaren 15ean hasiko dira, Carlos Altzugarai irakaslearen eskutik. Izen ematea piszinako ostatuan edo 637950 telefonora (Carlos) deituz egiten ahal da.

❖ **Dirulaguntza ikastetxeei**

Eskola orduz kanpoko ekitaldiak egiteko Irain eskolak 128.000 pezeta eta Tantirumairu ikastolak 103.000 pezeta jasoko dituzte Nafarroako Gobernutik.

❖ **Erresidentzia mixtoa**

Adintuendako erresidentzia mixtoa, eta ez etxebizitza zainduak, behar dituela jakinarazi dio udalak Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate sailari. Itziar Iriarte, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateko langilearen txostenean oinarritu da udala eskaera hau luzatzeko. Erresidentzia Landaze-laietan egiten ari den eraikuntzan paratu asmo du udalak eta asiloa bota egiten da kiroldegia egiteko.



Dantza taldeko nagusiak Frantziako Gennetines hirian izanen dira uztaila erdi aldera beraien dantzak erakusten



Tantirumairu taldea Europako Dantza Jaialdira joanen da

Elkartrukaketa egingen du mundu osoko dantza taldeekin

AITOR AROZENA

Uztailaren 15etik 21era Frantziako erdialdeko Gennetines hirian egingen den Europako VII. Dantza Jaialdian parte hartuko du Tantirumairu dantza taldeak.

Zehazki, uztailaren 19an eta 20an Lesakako hogeitabortz

dantzari eta musikari izanen dira topaketa horretan, talde nagusikoak guztiak. Herrikoekin batera, Alsazia, Grezia, Italia eta Europako bertze herrialdetako dantzariak izanen dira, baita Argentina, Kanada, Estatu Batuak eta mundu zabaleko ber-

tze hainbat talde ere. Jaialdi honen xedea «dantzak, doinuak eta musika instrumentori buruzko ezagupena elkartrukatzea da», Garbiñe Sarasola, Tantirumairu dantza taldeko arduradunaren erranetan.

Antolatzaileek erran dietenez, batez

ere gaiteroen musika interesatzen zaie, baina, eraberean, «fandangoa, larrain dantza edo Zeharkakoa bezalako dantzak erakutsiko diegu».

Dantza taldekoak autobusean joanen dira eta hau ordaintzeko errifa bat egingen dute



Aiert Beobide dantzariak aureskua eskaini zien Plaza Zaharrean omenaldia jaso zuten bikoteei

Argazkia: Aitor A.

Urrezko Ezteiak egin dutenei omenaldia

Espostu zirenetik 50 urte bete dituzten Jose Juan Portu eta M^a Jesus Etxabide, Benito Tainta eta Ignacia Pikabea eta Dolores Bergara eta Antonio Mujika —azken hau ekitaldira joaterik izan ez bazuen ere— omendu zituen ekainaren 18an CANeko Urrezko Adina elkartek. Meza, kalejira, aureskua eta bazkari ederra—340 lagun bildu ziren— izan zuten ospatzeko.

ETXALAR

Ipuin topaketako sariak banatu ziren

Baserriko bideei zoladura emateko lana sartu du Udalbatzak 1997-1999 urteetarako planean

PELLO APEZETXEA

Aurtengo Haurren Eguna ere atseginez oroitzekoa izanen da. Eguraldiaren goxotasunak ere eman zuen bere laguntza, plaza inguruan ibiltzeko eta, ipuin batzuk adituz gain, eskolan urtean barrena burututako eskulan politak ikusteko. Haurrek berek trikitiaz giroitutako pilota-plazan, bazkariak eta pailazoek ordu luzez gozatzeko aukera eman zuten.

Zentral elektrikoak ez ditu baldintzak betetzen

Gaineko Zentrala bera nahiz kanala moldatzeko lanak egin ditu azkenaldian Nafarroako Energia Hidroelektrikoak. Iduri due-



Eskolan urtean barrena egindako eskulanak ikusgai izan ziren

nez, ordea, ez ditu baldintza guztiak egoki betetzen, hala-nola, kanalera doazen errekek neurri batean errespetatzea, erabat agortu ez daitezen; edo eta kanala estaltzea, egin ga-

be dagoen zatian, egitasmoan edo proiektuan ageri den bezala. Egoera horretan, Udalbatzari ezinezko bilakatzen zaio zentrala irekitzeko baimena ematea.

Hiru idorpe jasoko dituzte ehiztariak

25 metro karratuko idorpeak jasoko ditu Ehiztari Elkartek Gorospil, Urtsua eta Usategieta alderdian.

Ehiztarietako babesleku izanen dira ehiza denboran, eta, bertez naz, artzain, mendizale eta normahik erabili ahal izanen du.

Baserrietako bideak moldatzea

Hiru urtetik Gobernuari bidaltzen zaion planean, hirurteko plana deitua, lan bat bakarra sartu du oraingoa Udalbatzak: baserriko bideei zoladura ematea. 1997-1999 urteetarako planean lan hori egitea eskatu du, 120 milioiko kostua duena. Eskatu egin du, zeren Gobernuak onartu eta lagundu behar baitu, egitekotan. Lan gehiago sartu dira aintzineko planetan, baina Gobernuak ez zituen onetsi.



ROMANO dekorazioak

PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

- Zolak jartzen ditugu:
 - Kortxoak
 - Moksetak
 - Parketa
 - Sintasola
- Gure kolokazio tailerra daukagu
- Komertzioen errotulazioa

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Legia I • Tel. 631137-630941 • **BERA**

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

BOAN
TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • **BERA**

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
Lagun artean goxo-goxo egoteko leku egokia
☎ 635290
ETXALAR

Aspaldiko jendetzarik haundiena San Juan Xar egunean


101 lagun bildu ziren Zahar-Etxean jubilatuen bestan

Igantzi

OSKAR TXOPERENA

Zaila da neurtzea, baina, San Juan Xarrena aurten bildutako jendea aspaldian izan den haundiena izan omen da. Eguraldiak lagunduta, ibilgailu ilarra haundiak sortu zituen ospakizunak, bi autobus barne. Besta zahar hau berriro indartzen ari dela ematen du azken urteotan.

San Juan Xarreko erromerian egon ondotik, herrian bertan zuten zita jubilatuek, Zahar-Etxean hain zuzen. 101 lagun bildu ziren bazkaltzera. Inoiz izan den kopururik haundiena, hemen ere. Bazkaria, Herriko Etxeko Kontxita serbitu zien, eta ondotik, Jose Luis Argatakoa-



Akautu zaie haurrei aurtengo ikasturtea. Ez dute nolanhikoa izan azken hilabete hau: Zarautz eta Hondarribiko kanpaldiak, Haurraren Eguna, Senpere eta Larungo ateraldia eta gurasoekin Getaria eta Txiki-Parkera egindako bidaia. Hori dituzue ttikienak Haurraren Egunean kantatzen. Eta ttikienekin ari garenez, Haur Hezkuntzako irakasle postua heldu den ikasturterako hutsik gelditu dela erran behariko, inork ez du eskatu eta. Ondorioz, behin behineko irakaslea izanen dugu. A zer poza haurrentzat berriro Jaione etorriko balitz! Momentuz irailerako indar berriak hartzeko denbora heldu zaie

Oskar TXOPERENA

rekin izan zuten dantzaldia. Gustora atera

ziren denak, bai bazkaria baita ondotik pa-

satutako arratsalde goxoarekin ere.

ttipi-flash

❖ Pala txapelketa

12 bikote hasi dira jokatzeko Biltoki-koek antolatutako pala txapelketa. Sei bikoteko bi talde osatu dituzte. Denek denek kontra jokatuko ondotik, talde bakoitzeko bi lehenak jokatuko dituzte finalerdiak.

❖ Abesbatza oporretan

Udako oporrak hartu ditu abesbatzak. Astero egiten duten entsaioari Amabirjinetan ekinen diote berriro, bestetako meza eta geroago eskainiko dituzten bi kontzertuak presatzeko.



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13
☎ 948 - 62 75 47

LESAKA

Lagunekin
elkartzeko
toki egokia



INDUSTRI DISEINU
ETA ZERBITZUAK

- TRESNERIAREN DISEINUA ETA ERREFORMA
- MANTENIMENDU OSOA ETA AURREZAINTEA
- DENA EGITEN DUGU:
 - DISEINUA
 - ERAIKUNTZA
 - MONTAIA ETA MARTXAN PARATZEA

Bordienea Etxea, behea • Tel/Fax: 63 71 67 • LESAKA



ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- Daniel Hechter
- Caramelo
- Island
- Genfis
- Lacoste
- Bonaventure
- Replay
- Diesel
- Guess
- Levi's

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN

Arantza

Ikasturtea bukatzeko Iruñera joan ziren eskolako ikasleak

Ez dute, halere, udan aspertzeko astirik izanen, patinaia eta txirrindularitza ikastaroak antolatu baititu Guraso Elkarteak

GARBIÑE ETA ELIXABET

Ikasturtea bukatu dela eta eskolako haurrek azkeneko egunean eskurtsioa izan zuten. Eguraldiak ez zien aunitz lagundu, baina hala eta guztiz ere, hagitx ongi pasatu zuten, Iruñeko piszina estaliara joan baitziren. Kurtsoa bukatzearekin 10 haurrek adio erraten diote herriko eskolari eta Berako Institutura joanen dira.

Igerilekura bidaiak

Guraso elkarteak Igantziko piszinarako bidaiak antolatu ditu aurten ere. Ekainaren 31n hasi eta uztaila bukaera arte goizero izanen da, asteburuetan ezik. 45 lagun apuntatu dira joateko, horie-



San Joan bezperako suekin ederki gozatu zuten haurrek, beraiek izan baitziren herrian barna kajak, kartoiak eta paperak bildu zituztenak. Biharamonean San Juan Xarren jende pila bildu zuen meza izan zen.

tatik 18 monitorearekin igerian ikasten ari tuko dira. Bertzalde, gurasoek udarako patinaia eta txirrindularitza klaseak ere antolatu ditu. Patinaian 20 la-

gun apuntatu dira eta txirrindularitzan 15. Klaseak arratsaldean eman dira frontoian.

Pala txapelketa

Ekaitza elkarteak antolatutako pala txapelketaren irabazleak

Aitor Agesta eta Aitor Telletxea suertatu ziren, ekainaren 22an jotako finalean Jon Agesta eta Jaime Iturriari irabazi ondotik.

ttipi-flash

❖ Euskara ikastaroa

Aterpera uztailean etorriko dira euskara ikastaroak, iaz bezala. Otorduak eta gaua Aterpen eginen dute eta klaseak eskolan.

❖ 2.100.000 pezeta

inguruko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak mendian egindako garbitze eta landatze lanengatik.

❖ Herri kirol

taldea Nafarroako txapeldun gelditu dela eta uztailean 9an Iruñeko Foru Plazan erakustaldi bat egiteko deitu dituzte orain.

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak



Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305

SAROB

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

F. MARITORENA



Mendi eta lorategi garbiketak

Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA

ARANTZAKO UDALA

Kolektore Nagusiaren proiektuak ukitutako luraren desjabetzea

Arantzako Udalak, 1996ko ekainaren 14an egindako osoko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

"Erabaki da:

1.- Desjabetzapen espedienteari hasiera ematea eta Kolektore Nagusiaren proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen banan banako zerrenda zehatza, baita jabeena ere, hasiera batez onestea. Honako hau da zerrenda:

Titularra: Angulas de Aguinaga, S.A.

Helbidea: Laskibar Bailara 5, Irura (Gipuzkoa).

Ukitutako azalera: 280 m².

Katastroko datuak: 6. poligonoko 192 lurzatia.

Hirigintzako sailkapena: Basakoa.

2.- Erabaki hau eta ondasunen zerrenda jendaurrean hamabortz lan egunez paratzea, ukituak gertatu direnek eta gainerako interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.

3.- Erabakia eta ondasun eta eskubideen zerrenda, azken honetan aipatzen diren jabeen jakinaraztea."

Arantza, 1996ko ekainaren 14an

Alkatea, Jose Ramon Oskoz

Malerreka

Leurtzako urtegien inguruan ez dago kanpatzerik uztailetik aitzinera


Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Sailak egindako Erabilera eta Gestio Plana martxan jarriko da

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 1etik aitzinera Leurtzako urtegien inguruan kanpin-dendak eta antzekoak jartzea debekatu du Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Sailak, Beintza-Labaien eta Urrozko Udalekin batera hartutako erabaki baten ondorioz.

Erakunde hauek adierazi dutenez, inguru horretara joaten den jendetza guztia-erendako ez dago azpiegitura egokirik. Laister, gainera, Leurtzako urtegiak Ingurune Naturala eta Errekreatiboa izendatu behar dituzte, dagokion Foru Dekretuaren aitzinproiektua publiko-ki azaldu ondotik.

Kanpatze debekua



Leurtza inguruak kanpin-dendaz betetzen ziren opor garaietan

betetzen dela ziurtatzeko bi guarda kontratatu ditu Ingurugiro Sailak. Orain arte, Aste Santuan, uztaila eta

abuztuan, hainbat kanpin-genda ezartzen ziren Leurtza urtegien inguruan, ondorioz zaborra pilatzen zen eta

ingurunea hondatua uzten zen.

ERABILERA ETA GESTIO PLANA

Oraindik onartzeko

badago ere, inguru honetarako prestatu den erabilera eta gestio planaren arabera, Ingurugiro Sailak azientak sartzeko edo egur probetxamendurako baimenak eman ditzazke. Azientak bideetatik ibiltzea onartua dago plan honetan.

Planaren arabera, ingurua bi zonaldeetan banatuko da. Bata, urtegiak inguratzen dituen bidera artekoa (34 Ha.) eta gainerakoa (347,5 Ha.) Lehenbizikoan berendalekua eta informazioarako lekua paratuko dira eta kanpatzea debekatu egon bada ere, etorkizunean, udalekin adostasuna lortuz gero, horretarako lekua jarri daiteke.

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta



LIZUN

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

MariCruz

LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - **DONEZTEBE**



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

Doneztebe

Ameztia ondoko lur eremua Babes Ofizialeko etxeak egiteko salduko da

Maite Gonzalez musika irakaslearen hilketak samina eta ustekabea sortu du herritarren artean

TXEMA ALDABE

Ameztia ondoan dagoen lur-eremua, bestetan betizuak askatzen duten lekua alegia, Donamaria, Oitz eta Doneztebeko udalen jabetza da. Bertan, Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko lur hori saltzeko lehiaketa-enkantea egitea onartu dute hiru udalek. Enkantedetik ateratzen den dirua hiru udalen artean banatuko litzateke.

25 MILIOITAN BALORATUAK

Lur sailak 1.631 metro karratu ditu eta hasiera batean, 25 milioi pezetatan baloratua dago, Javier Txokarro eta Maria Urmeneta arkitketuen arabera.

Eredu hori 1947an erosi zuten hiru udalek, Osasun zentrua eta medikuaren etxebizitzak bertan egiteko. Orain, ordea, ez du inolako zentzurik horretarako gordetzeak, hor baitago Malerrekako Osasun Zentroa.



Maite Gonzalez hil zen lekuan hainbat lore sorta paratu zuten bere ikasle eta herritarrek

Argazkia: Joxemanuel

Maite Gonzalez musika irakaslea tiroz hil zuten ekainaren 17an

Maite Gonzalez Rodriguez, Doneztebe, Nabarte, Legasa, Sunbilla eta Iturengo musika irakaslea, Marcelino Larretxeak botatuko bi eskopeta tiroren ondorioz hil zen ekainaren 17an.

Irakaslea Doneztebeko eskolatik atera berria zen eta bere etxera zoaiela, Elgorri-

gako zubian, jaso ziotuen bi tiroak. Marcelino Larretxea, ondoren, bere burua hiltzen saiatu zen baina ez zuen lortu. Larriki zaurituta eraman zuten Iruñera. Handik egun batzuetara epailearen aitzinean deklaratu zuenean, "itsutu egin nintzen eta deustaz ezagutzen ez nuen

emakume haren kontra tiro egin nuen. Hagitz damututanago eta ez dut bizitzeko gogorik" adierazi zuen.

Gertaerak atsekabe eta samin handia sortu du eskolan eta herrian, hagitz irakasle maitatua baitzen Maite. Ikasturte honetan etorria zen Doneztebera bizitzera.

ttipi-flash

❖ **Frontoi, ostatu eta igerilekuko zerbitzua**

Jose Javier Irigoien Perurenak eramanen du denboraldi honetan 600.000 pezetaren (gehi BEZ) truke.

❖ **Garbiketa arduraduna**

Herriko Etxeko garbiketa arduradun lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa atera du Udalak. Lanpostu finkoa eta orduka betetzeko izanen da.

❖ **Donamariarako errepide zaharra**

guardiazibilen ibilgailu ofizial eta partikularrek itxizten dutela eta lekua libre uztea eskatu du berriro Udalak. Bizilagunek diotenez, bertan dauden kontenedoretara ere ezin dira ailegatu.

FOTO MENA

UDA HONETAKO EZKONTZETAKO KANPAINA BERRIA HASIA DAGO

KALE NAGUSIA 4 - TELETA FAXI: 45 08 25 DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

DONEZTEBE

AKADEMIA

Maila guztiak
OHO, DBH, LH, BBB, IEE...

Edozein asignaturak
Matematikak, fisika, kimika, latina, dib.tek.

Hizkuntzak
Euskera, ingelesa, frantsesa (Adin guztiak)

Mekanografia

© 451841 • 908-778653
Parrokia 5, 2. DONEZTEBE

Malerreka

Malerrekako Mankomunitateak Euskara Batzordearen esku utzi du TTIPI-TTAPAren laguntza erabakitzea

«Jendeari kobratzen hastea» proposatu zuen zenbait udal ordezkari

TTIPI-TTAPA

Joan den asteartean bilera zuen Malerreka-ko Mankomunitateak eta bertze gauzen artean, TTIPI-TTAPA al- dizkariaren finantzia- zioaz aritu ziren.

Kontua da duela 5 urte TTIPI-TTAPAren de- fizita finantziatzeko formula bat planteatu zela Herriko Etxeetan. Formula horretan, de- fizita herri bakoitzeko familia kopuruaren arabera ordaintzea au- rrikusi zen. Geroztik, ordea, finantziatio mo- du hau onartu eta bete duen bakarra Bortziri- etako Euskara Manko- munitadea izan da, baita Leitza, Ituren eta Zubietako udalak ere zenbait urtetan.

Gainerako herrietan ez dute formula seku- lan aplikatu, eta itxu- ra guzien arabera, az- ken urteotako lagun- tza gehiago murriztu nahirik dabilta, eta ba- da «pezeta bat ere ez



Malerrekako 1.230 familik hartzen dute etxean TTIPI-TTAPA aldizkaria

ematea» proposatzen duenik.

Egoera honekin kezkatutik, Bortziri- etako Euskara Manko- munitateak bilera ba- tera deitu zituen ingu- ruko udalak. Malerre- katik ordezkari baka- rra agertu zen, Narbar- teko kontzejuko orde- zkaria den Andres Etxe- nike. Konbokatoriaren porrota ikusirik, era- baki zuten bilerara dei- tuak izan eta agertu ez

ziren herrietara eurek joatea, eta joan den as- teartean, Malerreka- ra egin zuten bisita.

JENDEARI KOB RATU

Horixe da, batez ere Malerreka eta Baztan aldeko udal ordezka- riek burutan dutena. Gauza jakina da, or- dea, kobratzen hasiko balitz, jende gutiagok leituko lukeela, eta oro- har, euskararen pre-

sentziak gibelera egi- nen lukeela neurri be- rean. Izan ere, ez da ahantzi behar, ttipi-tta- paren helburua euskra normalizatzea eta in- dartzeko laguntzea de- la.

Heldu den urteari begira, ikusi egin be- har zein den Manko- munitadeak hartuko duen azken erabakia. Gaia uztailearen 24ean aztertuko du Euskara Batzordeak.

ttipi-flash

Dirulaguntza ikastetxeei

Eskola orduz kan- poko ekitaldiak egi- teko Doneztebeko eskolak 180.000 pe- zeta, Iturengoak 81.000, Legasakoak 69.000, Narbarteko- ak 83.000 eta Sun- billakoak 84.000 pezeta jasoko di- tuzte Nafarroako Gobernutik. Bert- zalde, Legasako es- kolako kalefakzioa h a u n d i t z e k o 176.000 pezeta ja- soko ditu Legasako kontzejua.

Barnetegia Iturenen

AEKren eskutik etorriak dira Iture- nera euskara ikas- leak. 3-4 txanda- tan banatuko dira uztaile-abuztuan eta Herriko Etxean hartuko dute osta- tu, beti bezala.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

ttipi-ttapa
Gida Komertziala 96

Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!



**Zaborra guztion zeregina da.
Zuk ere parte hartu.**



**La basura es una tarea de todos.
Por ti que no queda**

Urrezko Ezteiak eta 85 urteak betetzen dituzte omendu zituen ekainaren 28an Arkupeak elkar

Hamahiru senar-emaztek bete dituzte 50 urte ezkondu eta berrogeitalau dira lautan hogeitau egun dituztenak aurten

85 urte

Monica Lazkano Zia	Almandoz
Estanislau Etxeberria Etxenike	Amaiur
Juana Inda Maritorea	Amaiur
Lucia Jauregi Inda	Amaiur
Marcelina Almandoz Larraun	Arantza
Norberto Apezetxea Larralde	Arantza
Jose Mitxelena Pikabea	Arantza
Joaquina Caballero Marzol	Areso
Victoria Iribarren Urroz	Arizkun
Victoria Juanikotena Salaburu	Arizkun
Pedro Zugarramurdi Istilart	Arizkun
Felix Aristizabal Saldias	Arraioz
Felix Zubieta Apezetxea	Arraioz
Marcelino Korteia Irigoien	Azpilkueta
Juana Barrenetxe Zelaieta	Berroeta
Iluminada Olazar Iriarte	Berroeta
Isabel Etxandi Almandoz	Donamaria
Julian Mitxeltorea Andiarrena	Donamaria
Anbrosio Otxandorena Otxandorena	Donamaria
Amalia Arretxea Carrion	Doneztebe
Manuel Olaizola Kaminoa	Doneztebe
Toribio Agesta Arburua	Etxalar
Castora Agesta Barandiaran	Etxalar
Estefania Danboriena Etxeberria	Etxalar
Encarnación Zubieta Sanzberro	Etxalar
Elvira Iturralde Barberena	Elbetea
Anunciación Elizetxe Dufurrena	Erratzu
Vicente Goñi Duhalde	Erratzu
Tomas Irigoien Duhalde	Erratzu
Petronila Mariezkurrena Gastearena	Ezkurra
Mikel Mariezkurrena Telletxea	Ezkurra
Juan Ariztia Dufurrena	Irurita
Julia Iturralde Elizalde	Irurita
María Etxenike Agerrebere	Gartzain
Jose Irigoien Perotxena	Gartzain
Ildefonso Larretxea Ariztia	Lekaroz
Micaela Sagastibeltza Zabaleta	Leitza
Jose Joaquin Zabaleta Huizi	Leitza
Juan Ignacio Rekondo Zabaleta	Oronoz
Carmen Urkiola Lazpiur	Oronoz
Tomasa Iantzi Iturria	Oronoz
Lucas Zelaieta Arretxea	Oronoz
Ramona Baleztena Gurbindo	Saldias
Asunción Iriberrri Armasa	Urrotz

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, giro eta animazio bikainarekin ospatu zuen Arkupeak jubilatuta eta pentsionisten elkarteak, CANen laguntzarekin, ohitura denez. Aurten goan, lautan hogeitau urte betetzen dituztenak eta Urrezko Ezteiak ospatzen dituztenak omentzeaz aparte bertze ospakizun garrantzitsua zuten gainera, elkartearen hamargarren urteurrena alegia.

MALERREKAKO ETXEBIZITZA ZAINDUAK INAUGURATU ZITUEN IRUÑEKO ARTZAPEZPIKUAK

Gisa honetako ospakizunak merezi zuen bezala, hainbat ekitaldi izan ziren goizean. Lehenik

txistulariak aritu ziren karriz karriz. Ondoren, Fernando Sebastian Iruñeko artzapezpikuak Nafarroako Gobernuko agintarien aintzinean Malerrekako Etxebizitza Zainduak inauguratu zituen. Meza ederra izan zen, bertsolari eta guzti. Elizkizuna akitzeko 'Agur Jaunak' kanta jo zuten txistulariek. Aurten omenaldia jaso duten hamahiru senar-emazteei eta lautan hogeitau urte bete duten berrogeitau lauhaxharrei opariak eman ondorena, Zelai harrijasotzaileak 150 kiloko harri errektangulararekin errekorra egin zuen, bortz minuturen buruan 32 aldiz altxatuz. Herri kirol ekitaldiekin segituz, Perurena aita-seeck ikuskizun

Urrezko Ezteiak

ARANTZA

Iñaki Iriberrri Zurgina - Mercedes Ramalle Comas

ERRATZU

Domingo Etxandi Elizetxe - Asuncion Duhalde Erramuzpe
Manuel Rekarte Elizalde - Faustina Sukilbide Erramuzpe

IGANTZI

Martin Antxordoki Irigoien - M^a Dolores Retegi Telletxea
J. Bautista Telletxea Elizondo - Carmen Alzuri Zozaia

LEITZA

J. Aizpuru Sarasua - María Zubitur Sarasua
Gregorio Ceballos Barcenaa - M^a Dolores Zabaleta Zabaleta
J. María Razkin Sansiñena - Antonia Rodriguez Elizegi
J. Joaquin Zabaleta Huizi - Rosario Aranburu Elduaian

ORONNOZ

Manuel Braña Igoa - Estefania Inda Aroztegi
Urbano Ibañez Romo - M^a Teresa Maia Etxeberria

URDAZUBI

Clemente Suhas Larraia - Cornelia Laurenzena Barandiaran

ZUBIETA

Francisco Juanikorena Mutuberria - Joaquina Juanikorena Santesteban



MALERREKAKO EUSKARA
ZERBITZUAREN ARGITALPENA

Euskararen egoera

Malerrekako euskararen egoerari buruz hainbat aburu

Soziologi Lantegiak 1992an egindako inkesta soziolinguistikoaren arabera,
«Euskara Nafarroan zertan den» liburuan argitaratua.

Pribilegiatuak edota mugatuak

Malerrekako bizilagunen artean %89a euskalduna da, horregatik da ingurune hau pribilegiatua. Bertzaldetik, alfabetatuen kopurua aunitzez ere bajuagoa da, %22a bertzerik ez baita alfabetatua, euskararen bizitza idatziari muga garrantzitsu bat paratzen zaiolarik. %3ak bakarrik irakurtzen du egunero euskal prentsa.

Honekin lotuta dago hiztunak duen baikortasuna hizkuntzaren egoerari buruz galdetzen diotenean, jendearen erantzunetan azaldu baita Malerreka eskualdea euskalduna dela bere osotasunean (= solasteko gaitasuna izatea, alegia).

Administrazioarekin batik bat gaztelera erabiltzera behartuta daude herritarrak

Lau lagunetik hiru euskaraz solasten da egunero; hau da, bizilagunen %80ak euskara

erabiltzen du bere eguneroko bizitzan: etxean, lagunartean eta karrikan gehienbat. Era berean hiztunek aitortzen dute, hainbat eremutan, gaztelera erabiltzera behartuta daudela.

Elebiz dagoena gaztelera hutsean irakurtzen du euskaldungoaren herenak

Honekin lotuta dago euskaldunen alfabetatzeko interes eza. Lau euskaldunetik batek bakarrik azaltzen du irakurtzen zein idazten ikasteko gogoia. Gogo falta horren arrazoia berri, beharrik ez sentitzean oinarrituta dago; eremu batzuek ez dutela euskaraz aritzea ahalbideratzen atzendu gabe beti ere.

Eremu horietan gaztelera erabiltzera derrigorlari egoteak euskal hiztunen artean %66ari arazoak sortzen dizkio, eroso sentitzen ez direlarik. Hala ere, solasaldian erdaldun bat baldin badago gehiengoak erdarari ekiten dio eta gainera,



Euskararen erabilera areagotzeko herritarrak kontzientziazteaz aparte, euskalgintzaren dinamikan diharduten elkarteak lagundu behar direla diote

%55ak uste du hori dela jokatibide zuzena.

Erdaldungoaren %18a bertzerik ez da euskara ikasten saiatu

Euskara ikasteko arrazoi nagusia hizkuntzarekin gertatzen den identifikazioa da: «gure hizkuntza da». Bertzaldetik, euskara ikasteko inolako beharrik sentitu ez dutenak ditugu aztergai; hauetatik %61ak dio ez duela inolako arazorik euskara ez jakiteagatik.

Administrazio publikoan nahiz erakunde pribatutan euskara bulkatu behar da

Iritzi horretakoa azaldu da bizilagunen %69a. Malerrekako euskara sustatzeko ikastaro eta ekitaldi gehiago antolatzeaz aparte, gizartearen kontzientziazioa landu behar dela diote. Nahiz eta %16ak bakarrik ezagutu garatzen diren ekimen eta jarduerak.

Honekin lotuta dago Euskara Zerbitzua ez ezagutzea, %11k ezagutzen baitu soi-

lik, dena den, ezagutzen dutenen artean zerbitzuaren balorazioa hagitz ona da.

Errate baterako borts lagunetik lauendako langilea euskalduna izatea derrigorrezko baldintza izan beharko luke kontratazio berrietan. Bertze adibide bat: Udalak bere ohiko jardunean euskarari lehentasuna eman diezaion eskatzen dute herritarrak.

Laburbiltzeko erran

Gehiengo nagusiaren usteetan, Administrazioak euskararen normalizazioari ekin behar diola eta, guztiz euskalduna izanen den administrazioa eskatzen dute.

Bertzetik, euskararen erabilera areagotzeko herritarrak kontzientziazteaz aparte, euskalgintzaren dinamikan diharduten elkarteak lagundu behar direla diote.

Euskararen etorkizunaz galdetzerakoan herritarrek baikor erantzun dute euskara Euskal Herri osoan zabalduko dela erranez. Eta %83ak dio euskarak hobera egin duela hondar borts urte hauetan.



Inkesta erantzun dutenen artean bitik batek irizten du Udalak euskararen normalizazio prozesuan lan gehiago egin behar duela

MALERREKAKO EUSKARA BATZORDEA:

Hizkuntzagatik desberdintasunak alde batera utzi eta elkartasunaren bidean

Malerrekako egoera aldatuz doa, nola bizi duzue?

Jendea denborarekin pixka bat kontzientziatuz doa, gazteak, hezkuntza, niretako dena eskuaraz izanen da. Orain ez da bortxatzen ahal, eskolatik kontzientziatu baldin bada, hau da, zainetik kontzientziatu, orduan frutua ematen ahal du. Baina, hor pausu aunitz daude eta giroak, lanak, telebistak horretan badakar aldaketa.

Hizkuntzak guzti horren gaitetik egon behar luke, horrela ez genuke honen beharrik, naturalki eginga egonen baitzen (haur euskaldunak, gazte, heldu...) prozesu guztia euskalduna.

Donezteben euskararen erabilera goiti doa. Udalek aldaketa hau bultzatzeko zerbait egiteko asmoa dute?

Bai, horretan ari gara jo ta ke; orain, gero fruiturik ematen duen edo, ez dakigu. Dena den, Euskara Zerbitzuaren lana hori ahalik eta gehien lantzea da Hizkuntza Politikan asesotzea.

Era guztietara, duela bi urtetik hona, gehiago solasten da eskuaraz Donezteben ere, jende helduak ere bai, ez gazteak bakarrik. Gainera, Donezteben jende aunitz kontzientziatzen ari gara, oraindik ez bada ere bere erpinera heldu.

Zergatik Donezteben euskararen erabilera goiti doa eta bertze herrietan behiti?

Aunitzetan, izaten da jendea -lehenagoko mentalidade zaharrik- gazteleraz solastu eta pertsona gehiago direla uste dutenak.

Horiek, nahiz eta gazteleraz



«Gutxiengoan elkartu eta ahalik eta hobekien atera behar ditugu gauzak»

ez jakin beti gazteleraz ari behar izaten dute, harrিতa nago horrekin, badakite eskuara ba! Hortik aparte, arazoak betikok dira betitik erdaraz aritu diren hiruzpalau lagun izaten dira eta horien inguruan erdaraz ari behar da, kriston indarra dute eta!

Gero, mutilek euskarari eusten diote baina neskek ez. Gainera, erdaraz aritzen diren mutilak lokalizatuak daude aisa baina, erdaraz segitzen badu gero eta gehiago izanen dira bere inguruan erdarara joko dutenak.

Zubietako Udalak UEMAn sartzea erabaki zuen, geroztik bere udal funtzionamendua euskaraz erabaki zuen. Eraginik izan ahal du bertze herrietan?

Ez, ez du eraginik izan, jende askok ez daki eta. Baina, merezi du UEMAn sartzea euskara orduan eta normalizatuago egonen baita, laguntza gehiago lortzeko ere aukera gehiago izanen dugu. Azken batean, hori erabaki politikoa da.

Populazioaren ia %90a euskalduna da Malerrekan. Mankomunitateak zein hizkuntzatan funtzionatzen du?

Zaborrak, Gizarte Laguntzaileak eta Euskara Zerbitzuak euskaraz. Gertatzen da, idazkaria alfabetatugabea dela, nahiz euskalduna izan berak oraindik ez duelakoz ikasi eta Mankomunitateak ez du bortxatuko, hortaz, zati batek behinik behin gazteleraz funtzionatzen du.

Gazteleraz asko sartzen da, erabilera bajua dagoelakoz pertsona batzutan. Eta eskuaraz mintzatzen ez dena bakarra da. Gainera, idazkariak notifikazioneak gazteleraz egiten dituzenez, orduan, euskaratik itzuli ordeaz errazagoa izaten da gazteleraz erratea.

Problema herrietatik Doneztebera etortzen direnekin sortzen da, hona heldu eta gazteleraz hasten baitira. Burutan dute erdaraz solasten dena bertzeak baino gehiago dela nahiz eta horrela ez izan.

Herritarrek ere, Doneztebetik goiti doazenean gazteleraz aritzen dira, «erdaraz ari bahaiz gehiago dakik» edo gisa horretan; hori ohitura da. Bertzalde, Franco garaian guardia zibilak beldurra hezurretaraino sartu ziguten, presione handia izan genuen eta beldurraren kutsuak segitzen du.

Donezteben euskaraz gero eta gehiago egiteko ohiturak aldatuko luke herritarrek duten joera hori?

Bai, Doneztebe kapital gisakoa da eta hona etortzean hemen euskaraz ari garela somatzen baldin badute, orduan «guk ere, ez gaituk gutxiago izanen», hori horrela da. Dena

dela, bada jendea euskararekin «nora joan behar den? Belatetik harat ez daike pasatu» erraten duena. Lotsa dute eta lotsatiei nik konplejurik ez edukitzeko erranen nieke, eta kultura pixka bat ikasteko Jaungoikoari eskerrak ez direla aunitz, gero eta guttiago dira.!

Euskara Zerbitzua Mankomunitatearekin lotzeko bitartekari modura Euskara Batzordea dago. Nortzuk biltzen zarete eta zein da helburua?

Ituren, Doneztebe, Donamaria, Sunbilla, Oitz, Urrotz, Ezkurra, Saldias, Zubieta eta Ibintza kultur taldea, Mendaur Euskaltegia eta Langarra Euskara taldea. Berte herrietatik ez dira etortzen zinegotziak gauza aunitzetako daudelakoz eta ez dute denborarik harraipatzen. Aitzakia behintzat bada, euskarak ez baitu lehentasunik, ez dute behar hori ikusten, ez dute euskaraz bizi gaitzkeenik onartzen. Hori ez dela egia erakustea falta da, euskaraz bizitzeko ohitura —erdararekin dugun ohitura berahartu behar dela eta euskarari lehentasuna eman.

Udal aldetik, epe laburrera zer egin daiteke?

Batetik, oposiziotan euskara eskatu, arma handia da hori guretako. Bertzetik, hau Euskal Herria bada, euskal eremua bada, Udalak, idea guztiak errespetatuz, euskara bulkatu behar du gure hizkuntza da eta.

Arestian aipatu dugu ohitura dagoela gaztelaraz aritzeko eta jendea kontzientziatu behar dugu euskaraz aritzeko, Kontzientziazio kanpainak baino gehiago udalak berak hartu behar du interesa, deialdietan euskalduna eskatu (euskalduna izateagatik puntuazioaren erdia lortu beharko luke).

Herritarrei zein mezu emanen zeniekete Udaletxetik?

Bere hizkuntzaz ardura eta interesa para dezatela. Gure hizkuntza da eta horietan bizi behar dugu, bertzeak adina bai-



«Euskara Teknikaria fijoia hobe genuke, orain, ikusten dute haurrak euskaldundu eta prozesu horrek euskaldundu eginen duela zona»

ta. Bertzaldetik, Iruñera eta kanpora joaten garelarik euskaraz egiten saiatu beharko genuke, eta erran eremu euskaldunetik heldu garela eta guk ulertzeko moduko euskalduna jartzeko. Problema da ez garela beti euskaraz egiten saiatzen.

Bertze udalei mezuren bat emanen zeniekete?

Gutxienik elkartu beharko genukeela euskara aurrera atera eta normalizatzen ahalegintzeko. Mankomunitatean denok elkarte beharko genuke, komisio bilerak egiten direlarik denak hona etorritik. Bertzalde, ekonomiak euskarak baino garrantzi gehiago duela gertatzen da, baina, euskararen problema ez da dirurik ez dagoela, nolabait ere euskararen afera asuntua edo superatua dagoela uste da. Eskolaren bidezko normalizazioan sinesten dute. Guk ez dugu normalizatorik ezagutuko baina, orain baino puska kontzientziatuagoak egonen direla espero dugu, hori ziur baietz.

Haur, gazte, heldu eta zaha-

rrerkin hitzaldiak antolatu behar dira, historiak kontatu jendea kontzientziazteko, konplejuak kentzeko.

Erabaki politikoa aipatzen delarik, momentu batean eta zona honetan, jendea nahiko definitua dago politika aldetik. Ez dauka sentidurik bere burua euskalduntzat jotzen duten udal ordezkari batzuk erratea «bai, baina euskara baino lehenago pistak, zaborrak, etabar daude»; ez dugu hori konprenitzen. Gutxienik aurrekontuak onartu baino lehen elkartu eta bilera bat egin beharko genuke.

Bertzalde, alderdiok euskaraz funtzionatu beharko genuke: euskaraz solastu, irakurri eta idatzi. Baina, ez gara alfabetatuak zabarkeria eta denbora falta arrazoi nagusiak direlarik.

Nola ikusten duzue Langarra Euskara Taldea?

Beharrezkoa da, herri hauen artean koordinatzeko horrelako zerbait falta zen. Udalek babesten dute eta azkeneko Euskara Batzordean Langarra-

rekin udaletan bilerak egiteko gelditu ginen. Langarrak nahi baldin badu behintzat, inoren menpe jarri gabe; koordinazio gisara. Jadanik egiten hasi dira udal bilerak eta ez dakiten tokitan gauzak garbitu behar dira: zer funtzionamendua duen eta zer gisako lana egiten duen argitu. Euskara normalizatzeko eta euskal kontzientzia sustatzeko Malerrekako Taldea dela azaldu beharko du. Ondarrear, erran behar dugu, Langarra eta Udalen artean plangintza bateratu bat egitea ongi ikusten dugula, udalekin bilerak maizago egin beharko lituzkete. Langarrak herriaren dinamizatzailea izan behar du, beharrak sortu eta udalen aurrera eraman (sesionetan notak sartu...).


Bertzalde, Langarrak antolatzen dituen ekitaldiak harrera hagitx ona dute, baina ez dira oso ezagunak: herrietako kultur taldeekin harremanak sendotu beharko lituzkete. Aunitz jendek laguntzen badigu indar gehiago izanen dugu eta.

Malerrekako helduen irakaskuntzari dagokion datuak dira grafikoa agertzen zaizkigunak. Ikusten denez azkeneko sei urteetako datuak dira eta agerian geratzen da, ondarreko lau urteetan batez ere, eman den egoera, aurtengo kurtsokoa izanik kopururik altuena.

Helduen irakaskuntzako arlo honetan bi atal nagusi ditugu: Euskalduntzea, euskaraz ez dakitenak eta ikasi nahi dutenak eta Alfabetatzea, nahiz eta euskaraz jakin, idazten, irakurtzen... ikasi nahi dutenak. Honen hurrengo maila EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) delarik. Aipatu beharreko datu bat da, azkeneko hiru urteetan EGA taldeek izan duten gorakada. Malerrekako Euskaltegia izanik klaseak emateko ardura-duna, Donezteben emateaz gain bertze hainbat herritan ere eman izan dira: Zubieta, Saldias, Donamaria, Sunbilla, Legasa, Narbarte...

Dirulaguntza izoztuak

Aipatu gabe ezin utzi, betidanik jasan izan duen arazo ekonomikoa; helduen euskalduntze eta Alfabetatzea, kontutan ez hartu izana, hain zuzen ere. Nafarroako Gobernutik



aspaldiko urteetan mugitu ez den diru kopurua jasotzen da: 76 pezeta ikasle eta orduko.

Malerrekako Mankomunitatetik ere, 1993-94 urtean 500.000 pezeta, 1994-95ean 750.000

pezeta eta aurtun, berriz ere, 500.000 pezetara jautsi gara. **Malerrekako Euskaltegia**

Eremu orotan euskararen erabileraren pausua eman ezean ez da euskara normalizatuko Malerrekan

Euskararen normalizazio-prozesuaren helburua, euskara giza-harremanetan ohiko hizkuntza bihurtzea da; nonnahi, noiznahi eta edozein gai zein erabilera-esparrutan euskara erabili ahal izatea eta erabiltzea. Edozein Udali normalizatzea dagozkion bi arloak aintzakotzat hartuz, hau da euskararen erabilera Udalaren barnean zein Malerrekan, goian aipatutako helburu horretarantz bideratu beharko ditu bere indarrak.

Esther Mugertzaeren erranetan, bide luzea izanen da, baina hartu beharreko neurriek, martxan jarri beharreko ekintza-programek edota herri-ekimenarekin orpo orpo egin beharreko lanek helburu horretara zuzenduta daude, hizkuntzaren biziraupena ziurtatzeko ezinbertzekoa baita. Batetik, euskaraz funtzionatuko duten Udalak izatea, eta bertzetik, euskaraz lasai bizi ahal izateko, lurralde oxigenatuak sortzea (UEMA).

Helburua lortzeko ezinbertzeko baldintza, huskeria badirudi ere, hizkuntz-komunitate horretako partaideek nahi izatea da, eta gainera, "nahi izate" hori modu indibidualean ez ezik, modu kolektiboan ere gorpuztu beharra dago, hots, herriak izan behar du berreskurapenaren protagonista nagusia, bertzela jai dugu.

Beraz, "nahi" hori baldin badago, herri-administrazioa eta herri-ekimenaren arteko elkarlana bideratu behar da. Gaur egun, hizkuntz-normalizazioarekin zerikusia duten eragile gehienek derrigorrezkotzat jotzen baitute erakunde publikoen gogo zein baliabideak eta herritarren nahi eta indarrak norabide berean jartzea, bien arteko elkarlana gauzatzea, hizkuntzaren normalizazioa lortuko bada.

Malerrekako zertan gara?

Euskara, zerbitzu-hizkuntza ez ezik lan-hizkuntza ere izan behar duenez, Udalaren

barne-prozesuari dagokionean aipatu beharra dago, benetako erronka, euskara jakite-tik euskaraz lan egitera doan bidea dela. Bide hau hagitz gutti urratu da eta gainera, pauso horretan huts eginez gero, alferrika-koak bihurtuko dira euskararen ezagutza lortzeko udalaren nahiz langileen aldetik egindako lanak eta dirugastuak. Erabileraren pausua ematen ez badugu ez da euskara normalizatuko Malerrekan Udaletan. Hau da euskara zerbitzuko erronka.

Malerrekari dagokionez euskara talde zabal eta irekia dagoela aipatu behar da. Langarra Euskara Taldeaz ari gara, eta Udala eta Langarraren arteko elkarlanak euskarari mesede handia egin diezaiotke. Langarra E.T.ak hainbat erabilera-esparrutan modu egokiagoan eragiteko ahalmena lortu du.

Beraz, norabide egokian goazela errate-ra usartzen gara, gaur eta hemen.

Malerrekako Euskara Zerbitzua

dintuak
 ik
 arte

polita eskaini zuten. Dantzariak ere aritu ziren. Ondotik, bazkari ederra izan zuten Bordatxo dantzalekuan, aspaldiko urteotan bezala, Argetaseko Jatetxe Modernoaren eskutik.

Besta egun zoragarrri hau akitzeko, *Ama-lur* taldearekin dantzaldia izan zen eta adineko jendeak ederki erakutsi zuen vals-a, pasodoblea edo sueltotan dantzatzeko hantak arinak dituela oraindik.



Fernando Sebastian artzapezpikuak, J. Apezetxea bikario orokorra, P. Martxel eta zonaldeko zenbait apaizen esku ospatutako mezara hainbat jende joan zen. Mezan bertsolariak ere aritu ziren eta akitzeko, txistulariek 'Agur Jaunak' abestia jo zuten. Arkupeak elkarteak urtero egiten duen bestaren une pollita izan zen

Artxiboa

RENAULT TRAFIC
 BIZITZA OSORAKO

Renault Trafic Combi 6. 25%eko deskontua



Bainan prezioan bakarrik! Oraintxe duzu aukera Renault Trafic Combi 6a eramateko %25eko deskontuarekin eta ekipamendurik hobereenarekin: **6 eserleku kristalezatatu, lagunduriko direkzioa, kanpoan angelu haundiko atzeranzko ispiluak, atzeko ateak 180°tan zabalgarriak eta 90°tan atxekigarriak, gidariaren eserlekua hirudimentsiotan erregulagarria eta bizkarralde makurgarria,**

Eta guzi hori **1.899.000** PTAtan. (BEZa barne)*



PEDRO GARMENDIA, S.A.
 Errep. z/g - Tfnoa 58 04 31. ELIZONDO

TALLERES SANTESTEBAN, S.A.
 Leitzako Errep., 1 Km.a - Tfnoa 45 02 82. DONEZTEBE

SEMPER HNOS., S.L.
 Irun-Iruña Errep. - Tfnoa. 63 06 21 - BERA

Malerreka

Euskararen inguruko salaketak egin dituzte

Langarra euskara taldeak, Euskara Batzordeak eta Mankomunitateak berak egin ditu

TXEMA ALDABE

Euskara ez erabil-tzeagatik Langarrak alde batetik eta Euskara Batzordeak bertetik, eta zenbait kasutan Mankomunitateak berak salatu eta publiko egin nahi ditu erdara hutsez egindako jokakerak. Langarrak Doneztebeko Udala salatu du, bestak direla eta ateratako portada erdara hutsean izateagatik. Honetaz gain, barrenean ere erdarak du lehentasuna, izenburuak eta publizitate gehiena gazteleraz baitaude. Langarrak bertze salaketa ere egin dio udalari, zentsoa



egin behar zela eta, zabaldu zen bandoa gazteleraz eta errolda egilea erdalduna izateagatik. Erreka kirol taldea ere salatu du Langarrak, Nafarroako Itzuliaren karteletan dena erdaraz egin zelako. Laugarren salaketa Beintza-Labaien-

go Udalari zuzendua dago. Leurtzako urtegietan udan lan egiteko kontratazioan ez da euskara batere kontuan hartu. Kasu honetan, Labaingo pertsona batetik, Euskara Batzordeak eta Mankomunitateak ere salatu dute legearen kontrako jo-

kaera hau. Honetaz gain, Mankomunitateak eta Euskara Batzordeen salaketak Ingu-rugiro Saila eta ON-TINA enpresari zuzenduak izan dira, Leurtzan egoteko bigarren guarda erdalduna igorri dutelako. Garraio Sailak eta Elgorriagako Udala ere salatuak izan dira, herri honetan egiten ari diren lanen seinalizazio guztia gazteleraz izateagatik.

Baina denak ez dira salaketak, txalotu nahi baita Urrozko Udalak Leurtzako seinalizazioak euskaraz izan daitezzen egindako eskaera.

Presoen egoerari buruzko solasaldia Iturenen

IBAN ISASI

Txemi Gorostiza, euskal preso politiko-koen abokatua Iturenera etorri zen inguruko HBk antolatutako presoen egoerari buruzko solasaldia ematera. Gartzeletako bizi egoerak, jasaten duten dispertsioa, nolakoak diren epaiketak, tortura mota ezberdinak eta bertze zenbait kontatu zituen Herriko Etxeko ganbaran ekainaren 14an egin zen hitzaldian.

Babes ofizialeko

etxebizitzak egiteko lur eremua saltzeko udalak egindako enkantea hutsik gelditu da, inor ez baita epean aurkeztu.

Itoitzeko solidarioekin bat egin zuten Mendaurreko erromerian

Ekainaren 16an burutu zen ekitaldian hirutan hogeitabortz lagun bildu ziren

Ekainaren 16an, igandean, goizeko 9,30etan Aurtitzeko frontoian lagun taldea bildu eta oinez Mendaurreko urtegiara abiatu zen. Bertze leku batzuetatik ere animatu ziren bertze batzuk. Eguerdialdera, paella erraldoi bat bertan egin eta bakoitzak eramandakoarekin, 65 bat lagun bazkaltzen elkartu ziren.

Bazkalondoren trikitixa, gitarra eta bertze musika tresnek eskeinitako erritmoaren laguntzaz jendea ani-



Hirutan hogeitabortz lagun bildu ziren Mendaurren Itoizko solidarioek elkartasuna adieraziz

matuta, kantu eta bertsoetan aritu zen. Itoizko sabotaiari buruzko bertso xebreak aditu ahal izan ziren. Besta akitzeko, arratsaldeko 8,30etan solasaldia izan zen Doneztebeko euskaltegian. Bideoa ikusteko eta solidarioengandik informazioa xuxenean jasotzeko aukera izan zen. Ekitaldi hauen helburuak "solidarioak" inongo kargurik gabe askatzea eta legez kanpokoak diren urtegi lanak behin betirako gelditzea izandu zen.

Doneztebeko igerilekua berritua ekainaren 27an inauguratu zen

39 milioi t'erdiko aurrekontua izan du, erdia Kirola eta Gazteri Institutuak paratua

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 27an inauguratu zen Doneztebeko igerilekua, azken hilabeteotako lanak akitu ondotik. Inaugurazioekitaldian Pedro Burillo, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria saileko kontseilaria izan zen, herriko udal ordezkariekin batera.

39 MILIOI T'ERDI PEZETA GOSTA DIREN LANAK EGIN DIRA

Berrikuntza lanak 39 milioi t'erdiko gasta dira eta horren erdia, 19'7 milioi Nafarroako Gobernuko Kirola eta Gazteri sailak ordaindu ditu. Dirutza horrekin hainbat lan egin dira: urhartzea berritu, modu horretan ura bultzatu, igerilekutik atera eta berriz itzul-

tzeko; igerilekuak gainezka egiten duenerako kanalea jarri da piszinaren bueltan eta inguruko zola berritu da; piszinaren zola sakontasun berrietara (1,10 m., -1,70 m. eta -1,10 m.) egokitu da; piszina barneko paretan, ormi-goian zeuden xuloak eta ixurriak estali dira eta estalki berri bat ere eman zaio. Piszina inguruan zegoen baranda moldatu egin da; filtratzeko eta ponpaketarako ekipoa berritu da; ur-maila erregulatzeko deposito berria eraiki da eta aldagela berriak egin dira.

Lan guzti hauen ondotik, bigarren fase batean piszina estaliko duen egitura teleskopikoa egitea aurrakusia dago eta honekin batera, ura eta haizea egokituko dituen sistema bat ere ezarri nahi da.

Zubietako patxada erabat desagertu da azken asteotan zakur bat malkorran tiroz hila agertu ondotik

AINHOA MUTUBERRIA

Aspaldian lasai ederrean bizi ginen ba Zubietan, baina orain dela gutxi patxada hori erabat desagertu da, batek daki zer arrano pasatu den. Uda dela, edo beroa dela, edo edozer dela ere, hemen beti zerbait pasatu beharra da, bizirik gaudela jakiteko bederen. Osagai ugari baditugu: etxe bateko zakurra malkorran tiroz hila, jendearen haserre eta ezin-gona, toki publikoetako

borrokak eta arazoari errematea emateko guardiazibila herrian sartua, ea nolabaitere gauzak konpontzen dituen. Oraindik zer ikusi behar ote dugu! Gauzak trankil trankil hartu beharrean, hemen gertatutakoak pelota zauliak adinako botea eman du. Orain zera bakkarra falta da: judizioan erabakiko denaren zain egotea, besterik ez. Ea orduan animoak pixko bat baretzen diren.



ADOS

INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

**Etxe,
etxebizitza
eta baserrien
alokairua eta
salmenta**

**IREKI
BERRIA**

*Telefonoak: 451841 / 908.778653
Parrokia 5, 2. ezk. • DONEZTEBE*

Goizueta

Hirurteko Planean 68 milioiko lanak aurkeztu ditu Udalak

Baserrietako pistak moldatzea, saneamendu sarea osatzea eta zenbait kale zolaberritzea ageri dira zerrendan, besteak beste

ESTEBAN AROZENA

Lau arlotan banatutako obren zerrenda aurkeztu du Udalak Nafarroako Gobernuaren aurrean, hurrengo hiru urteetan herriko azpiegiturari dagozkion beharrik inportanteenak bertan azalduz. Ia 68 milioikoa da eraikuntza hauen aurrekontua, eta Iruñeak onartuko balu %60-70 ingurua berak ordainduko luke, gainerakoa, herriaren kontura izango litzatekelarik.

Esate baterako, baserrietako pistei dagozkionean, Antoka eta Aozartara bitarteko bideen ormigonatzea eskatzen da. Saneamen-



duan berriz, gaur egun dagoen sarea osatzeko falta dena egin nahi da. Obra hau egitea behar beharrezkoa omen da, epe motzean ur-zikinnei tratamendua emateko egingo den depuradorari behar hainako etekina atera ahal izateko.

Kale Nagusitik es-

koletara jeisten dena eta Zibolatik Madalena bitarteko bideen zolaberritzea ere eskatzen du udalak, espaloia eta guzi gainera azkeneko hau.

Bukatzeke, eta azken hamabi urteetako Hirurteko Planen antzera Herriko Etxearen konponketa ere ager-



Musika eskolako ikasleek kontzertu bikaina eskaini zuten eta San Juan bezperan saltoka aritu ziren suaren inguruan

tzen da zerrendan, behan kontsulta berria egiterakoan, gaur egun bigarren solairuan dauden bulegoak lehenengora jeitsiko lirateke, baina batzar aretoa lehengoan mantenduz. Fatxadak konpontzeko eskaera ere egin dago noski.

Aipaturiko diru ko-

purua murrizt xamarra badirudi ere, batez ere orain dela hiru urteko arekin konparatuz gero, "oso errealista" da alkatesaren hitzetan, "Gobernuaren baiezkua jaso dezaketene obren zerrenda bakarra aurkeztu baitugu, deus ziurtatzerik ez izan arren".



LEITZAKO UDALA

Mendi enkantea

Udal honek, behar bezala baimenduta, jarraian zehazten den mendi probetxamendua ateratzen du salmentara enkante publikoaren bidez eta plegu itxiko prozeduraz: Sarasain parajeen kokaturiko lote bakarra, 631 laritzondo eta 24 Strobus Pinuz osatua, 501.660 eta 20.770 metro kubikoko bolumena kalkulatu zaio. Lizitazio oinarri mota: 5.162.090 pezeta.

Proposamenak, iragarkiaren azpian doan ereduari egokitu, eta Enpresari Sailkatzen duen Agiria edukitzearen frogagiria, Udaletxeko Idazkaritzan aurkeztuko dira 1996ko uztailaren 12ko eguerdiko hamabiak baino lehen, lizitazio oinarri motaren %5 behin-behineko fidantza moduan egin izanaren ordainagiriarekin batera.

Pleguen irekidura egun berean, uztailaren 12an, eguerdiko ordu batean Udaletxeko Batzar Aretoan egingen da.

Lehen enkantea hutsik suertatzen baldin bada, bigarrena egingen da %10eko beherapenarekin eta prozedura berdinez. Proposamenak aurkezteko epea uztailaren 19an bukatuko da, eguerdiko hamabietan, eta plegu irekidura egun beraren eguerdiko ordu batean egingen da. Hau ere hutsik geldituko balitz, hirugarren enkantea egingen litzateke %20ko beherapenarekin eta prozedura berdinez. Pleguak aurkezteko epea uztailaren 26ko eguerdiko hamabietan bukatuko litzateke eta hauen irekidura egun beraren eguerdiko ordu batean izanen litzateke.

Baldintza plegua Udala Idazkaritzan egonen da interesatuen eskura.

Leizta, 1996ko ekainak 27

Alkatea, Miguel Angel Illarregui Elberdin

PROPOSAMEN EREDUA

..... J./A.,
 NAN duenak
 eta herriko
 kalean
 bizi denak, 1996ko ekainaren
 26ko 77. Nafarroako Aldizkari
 Ofizialean Leizako Udalak
 argitaratu duen mendi
 enkantearen iragarkiari
 dagokionez adierazten du
 (Ietratzen
 eta zenbakiz) pezeta eskeintzen
 dituela eta Nafar Gobernuak
 eta Leizako Udalak jarritako
 baldintzak betetzen eta
 beteko dituela.
 Leizta, 1996koren
 Izenpetua:

Leitza

Izaietako parkea San Juan bezperan aurkeztu zen

Jose Miguel Elozegi, proiektuaren bultzatzaileak omenaldia jaso zuen

JOSEBA AZPIROZ

Izaietako parajearen 750 metrotako itxitarren barranean, 28 zuhaitz mota dauzkagu, paseotxo bat eginez, ikusteko moduan. Zuhaitz bakoitza etiketa batez identifikatua dago (izen zientifikoaz, euskaraz, gazteleraz, gailegoz eta katalanez). Bertan baziren 18 eta beste 10 aldatu dira. Leitza mendietan dauzkagun zuhaitz mota guztiak bertan izatea da helburua eta horretarako besta 10-12 falta dira. Hauek datorren neguan aldatuko dituzte. Luzarora, zuhaizkak ere aldatu nahi dituzte. Lan hauetan 30-40 lagun aritu dira auzolanean. Lana bukatzekoa badago ere, ekainaren 23an, aurkezpena egin zen. Alkateak, proiektu honen bultzatzaile izan den Jose Miguel Elozegi eskerrak eman zizkion udalaren izenean eta plaka bat oparitu,



Jende ugari izan zen Izaietako parkearen inaugurazio ekitaldian. Jose Miguel Elozegi ongi merezitako omenaldia jaso zuen Joseba

herriko toponimiaren izugarria gogoratuz, bilketan egin duen lan bidenabar.

Lan poltsak sortu dira

Langileen oporrak, bajak, etabarreatik ordezkoko hartu behar izaten dituela eta Udalak lanpostu hoiek betetzeko lan poltsak sortu ditu. Hiru lan zerranda dira: Okile taillerra eta haurtzaindegia, zerbitzu orokorretako langileak eta eskoletako atezaina. Kontratazioak zozketa bidez eginen dira eta izena emateko idazkaritzan fitxa bat bete behar da.

ttipi-flash

Roncalesa ordutegiak

Udarako Leitza-Donostia egunero autobus lerroa ezarri da. Leitzaatik goizeko 8,45etan eta arratsaldeko 6etan aterako da eta Donostiatik goizeko 11etan eta arratsaldeko 8etan. Autobusa gasolindegian geldituko da.

Dirulaguntza ikastetxeei

Eskola orduz kanpoko ekitaldiak egiteko 155.000 pezetara jasoko dituzte eskolak eta 217.000 pezetara DBHko institutuak.

Administrari laguntzaile lanpostua

Herriko Etxeko Idazkaritzarako administrari laguntzaile lanpostu finko bat oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia onartu du Udalak. Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hila-bete bateko epea izanen da izena emateko.

• Era guztietako Aseguruak
Etxerakoak, Bizitzakoak,
Istripuetakoak, Jubilazio Planak

Huarte Gotzai 8, beheak • 31880 LEITZA
Tel. (948) 61 09 19
M^a Jesus BARAIBAR

GRUPO VITALICIO SEGUROS

ttipi-ttapa

Gida Komertziala 96

Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!



GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estrukturak eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS

Baztan

Lekarozko gazteendako aterpea bisitatu du Burillo kontseilariak

31 milioi baino gehiago gastatu dira eraikuntza hau moldatzen eta Nafarroako Kirol eta Gazteri Institutuak erabiliko du

JOSEBA IGARABIDE

Pedro Burillo, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria sailko kontseilariak Lekarozko gazteendako aterpea bisitatu zuen ekainaren 27an. Berriki 31,2 milioi gos-

ta diren moldaketak egin dira eraikuntza honetan eta hemendik aitzine Nafarroako Kirol eta Gazteri Institutuak erabiliko du bere ekitaldietarako.

Eraikuntzak 3.500 m² inguruko azalera du eta hiru solairutan

banatua dago. Behe solairuan sukaldia, jangela, aldagelak, garbilerua, bainugela, bilera eta telebista gelak eta tailerra daude.

Lehen solairuan, sarrera, biltegia, bi bainugela, hiru bilera gela, bederatzi logela

aterpetuendako eta bertze hiru bakarkakoak monitorendako etabigarren solairuan, azkenik, sarrera, biltegia, bi bainugela, hiru bilera gela, monitorendako hiru gela, hamabi logela haundi eta hiru tiki daude.

ttipi-flash

❖ **Gida eta arma baimenak**

berrikusi eta lortzeko Azterketa Zentrua oporretan itxia egonen da uztailaren 24tik 31ra (biak barne).

❖ **Dirulaguntza ikastetxeei**

Eskola orduz kanpoko ekitaldiak egiteko Almandozko eskolak 66.000 pezeta, Amaiurkoak 73.000, Arizkungoak 67.000, Arraiozkoak 62.000, Elizondokoak 142.000, Erratzukoak 67.000, Iruritaokoak 80.000, Oronoz-Mugairikoak 67.000 eta Zigaokoak 62.000. Lekarozko institutuak 130.000, Lekarozko DBHk 233.000 eta Baztan ikastolak 97.000 pezeta jasoko dituzte Nafarroako Gobernutik.

❖ **Margoketa ikastaroa**

aire librean egingen da udan. Helduendako matrikula 5.000 pezeta eta haurrendako 2.000 pezetakoa izan da.

Zortzi ezezagun Intza ostatuan sartu ziren

Ekainaren 23ko goizaldean Elizondoko Intza ostatuan zortzi ezezagun sartu ziren, zazpi gizonezko eta emakume bat, ostatua itxi ondotik garbitze lanetan ari zirela. Tabernariari guardia zibilak zirela erran zioten eta probokazioa eta gehiegikeriazko tratua eman zioten. Komunean pintadak egin zituzten eta kanpokoaldeko kartelei su eman ondotik, ostatuko zerrailak silikonaz bete zituzten.

Intza ostatukoak Baztango alkatearekin bildu ziren afera honen berri eman eta soluzioak eskatzeko eta alkateak, Elizondoko kuarteleko kapitainarekin egonen zela erran zien.



Franziako Tourra Oronoz-Mugairitik pasatu zen 1992ko uztailaren 7an

Euskara adituko da Frantziako Tourrean

Frantziako Itzulia igaroko den herrieta Euskaraz taldeak (Baztan, Iruñea, Hendaia eta Baiona) Jean Marie Leblanc, Frantziako Itzuliaren lehendakariarekin bildu ziren ekainaren

12an Tarbesen. Bileraren xedea, «*Frantziako Itzuliak gure hizkuntza kontuan hartzea*» zen Baztan-Zugarramurdiko EHEren erranetan eta zuzendariak beraien eskaerak onartu zituen. Honela, organizazioak ematen dituen seinaletan euskara agertuko da eta Radio

Tourrek, euskaraz ere transmitituko du.

Baztan-Zugarramurdiko EHEk adierazi duenez, «*garrantzitsua iduritzen zaigu Euskal Herrian agertzen diren publizitate eta bide seinaleak euskaraz paratzea, mundu osoak jakin dezan Euskal Herriko hizkuntza euskara dela*».

ARLA
ARDOTEGIA
Ardoak • likorrak • freskagarriak
Santiago, 56 • ELIZONDO
☎ 45 32 66 (etxekoa) ☎ 45 24 73 (bodega)

ERLOJU eta BITXI DENDA
ARRIETA
KIROL TROFEOAK
Tfnua: 580 445 - ELIZONDO

JATETXEA
☎ 580297
Pedro Axular
ELIZONDO
Santxotena

Azpilkuetan ere Sanferminak ospatuko dituzte

Uztailak 5, ortzilerie:
12etan txupinazoa eta besten hasiera. 9,30etan baztan zopak Herriarte elkarteak. 12etatik 4etara dantzaldia JOXE ANGELEkin.

Uztailak 6, larunbata:
San Fermin bezpera 10etan argi soinuak. 4etan mus txapelketa herriko elkarteak. 8etatik 10etara eta 1etatik 5etara dantzaldia YATAGAN taldearekin.

Uztailak 7, igandea:
San Fermin Eguna 10etan argi soinuak. 11etan Meza Nagusia San Ferminen ohoretan. 4etan futbol partidua: «Viejas Glorias-Jovenes Promesas».

6etan haurrendako txokolatada eta jokoak. 8etan MODESTO. 11,30etan ezkil-jotzea. 12etatik 3etara dantzaldia MODESTOekin.

Uztailak 8, astelehena:
Zikiro Eguna

8etan su-piztea. Ondoren, gosaria. 2etan zikiro-jatea eta dantzaldia JOXE ANGELEkin. 9,30etan afaria herrikoentzat JOXE ANGELEN soinuekin alaiturik.. Gauean beste akabera emateko 'Pobre de mi' eta mozkor besta.



Udako ekitaldiak prestatu ditu Doikek. Bertzeak bertze hemengo kantuak bildu eta musikatu eta gizarteratu nahi dituzte. Gazteei begira zenbait ekitaldi ere egin nahi dituzte.

Artxiboa

Udako Zinea kanpainarekin uztailleko kultur programazio aberatsa hasi da Elizondon

Balleko Etxeak 'Arte eta Kultura' kanpainaren barnean antolatutako Udako Zinea egitaraua astelehenean hasi zen "El rey León" pelikularekin. Asteartean "Caravana al Este" eta asteazkenean "El peque se va de marcha" filmeak ikusgai izan dira.

Datorren astean berri, uztailearen 8an (astelehena) "El ladrón

de Bagdad" euskaraz emanen dute, asteartean "Jumanji" Robin Williamsekin eta asteazkenean "El libro de la Selva, la aventura continua" pelikulak ikusi ahal izanen dira. Emanaldi guztiak Elizondoko Merkatu Plazan izanen dira, gaueko 10,30etan.

Bertzalde, uztaileko kultur programazioarekin segituz, uz-

tailaren 8tik 30 artio Baztango artisauen eskulanak erakutsiko dira Arizkunenea Kultur Etxean.

Elizondoko herriak azkenik, "Oroimenerako Irudiak, Elizondo 1916-1996" erakusketazabalduko du uztailearen 24tik 30 artio Arizkunenean. Laneunetan 7etatik 9etara eta jai egunetan 12etatik 2etara irekiko da.

ttipi-flash

Intsumitu epaitua

Ekainaren 27an Erratzuko Xabier Ospital epaitu zuten intsumitua izateagatik. Auto karabana atera zen epaitegira eta 28an Baztango Gazte Asanbladak mendi marxa antolatu zuen Elizondotik Erratzura, epaiketa salatuz eta intsumituei elkartasuna adieraziz.

Selektibitatea

Lekarozko erdal adarrean %96ak aprobatu du selektibitatea eta euskal adarretik %100ak. Elizondoko Lanbide eskolatik %97,57ak gairitu du unibertsitatera pasatzeko proba.

Ikasturte bukaerako bidaiak

Erratzu eta Iruritako haurrak Carcassonera joan ziren bertako ur-parkera.

Amaiurko monumentoa

San Juan egunaz gozotik konpontzen ari dira. Dagoeneko lanak akautuxeak daude.

FOTO MENA

UDA HONETAKO EZKONTZETAKO
KANPAINA BERRIA HASIA DAGO

KALE NAGUSIA 4 - TEL ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE
SANTOAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

**MENDI
OSTATUA**

Santiago 25 - © 580313
ELIZONDO

**BAZTAN
FUNERARIA**

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO

TABERNA ETXEA
Besta zorionsuak opa dizkie
Azpilkuetarrei

Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE

ttipi-ttapa
Gida 96

Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!

Urdazubi

Ekitaldi bereziak antolatuta bukatu zen eskolako ikasturtea

Ttikienak Erribera aldean egon dira eta haundixiakoak Leiren egon ziren astebetetz

ALIZIA OLAIZOLA

Ekainaren 21ean eman zitzaion bukaera aurtengo ikasturteari, Urdazubi eta Zugarramurdiko eskola publikoan. Ekitaldiz betetako eguna izan zen eta eskolako atak zabalduak egon ziren, berexiki ikasleen gurasoei. Usadioa duten bezala, bi modutako ekitaldiak antolatuta ziren, bat ikasleek beraien parte hartzaile nagusi bezala eta bertzea kanpotik etorritako antzerki talde bat. Eguna ongi bukatze-



Sanjoanak ospatzen, ohitura den bezala bezperan sua eginez

ko, bazkaria izan zuten herriko plazan eta

ondotik dantzaldia hementxo Arantxa Sou-

belet eta Ainhoako Ibanekin.

Bidaiak

Bertzalde, bidaiak eginak dituzte, ttikienak Erribera aldean egon dira eta haundixiakoak Leiren pasatu zuten aste bat. Aurten zortzigarren maila bukatu dutenak lau izan dira.

Dirulaguntza eskolari

Eskola orduz kanpoko ekitaldiak antolatzeko 77.000 pezetako dirulaguntza jaso du Urdazubi-Zugarramurdiko eskolak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailetik.

Zugarramurdi

Sei mila lagun sartu ziren lezeetan ekaineko gaupasan

Uztailaren bukaerakoz antolatuko da ekitaldi honetan lan egin dutenen bizkar-besta afaria

MARGARI ETA KORO

Azken hauetan bezala, aurten ere jendealde haundia ibili da erearoko gaupasan, bakarrik lezera sartu zirenak 6.000 lagun inguru izan ziren, hauek kanpo lezera jausten ez direnak ere franko izaten baitire.

Aurten aldaketa berezi bat izan zen gau huntan: *Akelarre* antzerkia herriko taldeak egin beharrean Bizkaiko Markelñe taldea aritu zen *Armagedon* antzeslan

ikusgarria eskeiniz.

Aipatzekoa da ere jendea gero eta beranduago erretiratzen dela, Plazako ostua goizeko 9ak arte aritu bazen, 10etan oraindik plazako giroa pil-pilean zegoen. Eta behar den bezala: lanaren ondotik, saria. Abisatuko da denbora dela, baina hemendik aintzinatezen dugu uztailaren bukaerarakoz antolatuko dela besta honetan lan egin dutenen "bizkar-besta afaria", Armua jatetxean.

Sanjoan suak Sanjoan gauean

Aipatutako besta hunek herriko bizitza hankaz goiti paratzen duela ikusteko, nahikoa da erratea haurrek San Joan bezperako suak gau horretan egin beharrean, San Joan gauean egin zituztela. Bestako giroak despistatuxeak harrapatu zituen eta behar zenean ez zuten egin, biharramonean baizik.


Zubietako joaldunak gaupasan izan ziren



Sara

Presoak Euskal Herrira lemarekin hamar talde futbol txapelketan

Animaineko kirol zelaian jokatu zen eta Baionako *Bis a Bis* taldea suertatu zen irabazle



Presoak Euskal Herrira lemapean hamar taldek parte hartu zuten zango baloi txapelketan

MIXEL ETA JACQUELINE

Erearoaren 22an iragan zen Animaineko kirol zelaian presoan aldeko futbol txapelketa. Arrakasta ukan zuen eta giro ezin hobean egin zen. Sustengu aratsalde huntan parte hartu zuten: Bis a Bis (Baiona), Izar Gorri

(Bera), Sokoa lantegia (Hendaia), Ipar Izar (Angelu), Arraultze Klub (Bera), Txapis (Etxalar), Azkaine, Arrantzola (Arbona), Anka Zikin (konfinatuak eta preso ohiak) eta Goxoki (Itsasu). Bis a Bis txapelkun atera zen, finalean 1-0 ira-

baziz Berako Izar taldearen aurka. Baionarek eskuratu zuten sarritzat Josu Goiak egin eskultura bikain bat. Eskerrak huni, antolatzaile eta parte hartu zuten guzieri.

Saratik Getharirat

Ekainaren 17an, adineko 43 saratarrek

ateraldi bat egin zuten eta hunen berri ematen dauku Manex Bergarak: «Saratik Getharirat, 20 km. Bainan zer egun ederra! Eta zoin leku pollitak! Gehio dena, amarretarik bederatziek, ez ginituen bate-re ezagutzen. Irri egin



behar da edo nigar? Zergabiltza espantuz, han barnaka, hemen berean, eskuazpian dituzularik, nihungo lekurik ederrenak eta goxoenak? Euskalduna, maita zak, eta ezagut lehenik, hire Herria. Hirezat maitagarriore ez duk atxemanen».

Eskisaroi
jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

M^{te} Dolores Miñana
TOPOGRAFA
NEURKETA • PLANOAK
Lur neurketak, Luberriak
Plantazioak, etab...
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. **ELIZONDO**

GA SAKAITZ
fontanería
calefacción
Empresa colaboradora de
REPIJOL
AUTONO
**Era guzietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • **ELIZONDO**

MENDIALDE Jatetxea
Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

 **ZALDUBI**
Martin Lizasoain Adansa
Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN
**Sukalde eta
Bainu Mobleak**
Egoki-ren banatzaile
baimendua


EZKONTZAK

Jose Manuel Lekuona Odriozola eta **Francisca Zabala Oiartzabal**, Oiartzun eta Donostiakoa, Lesakan ekainaren 8an.

Agustin Miguel Baigorri Corres eta **Ana Isabel Iguzkiagirre Zozaia**, Iruñea eta Lesakakoa, ekainaren 22an.

Iñaki Fagoaga Iturralde eta **M^a Dolores Izquierdo Alzuyet**, Erratzu eta Iruritakoa, ekainaren 15ean.

Juan Miguel Arraztoa Zubiri eta **Elisa Mendiberri Salaburu**, Elizondo eta Gartzaingoa, ekainaren 22an.

Jose Javier Dagerre Endara eta **Amaia Antsalas Ariztegi**, Bera eta Lesakakoa, ekainaren 15ean.

JAIOTZAK

Ana Elizalde Benitez, Lesakakoa, apirilaren 20an.

Idoia Perez Aragon, Doneztebekoa, ekainaren 7an.

Luisa Garcia Otxandorena, Doneztebekoa, ekainaren 14an.

Julia Garcia Otxandorena, Doneztebekoa, ekainaren 14an.

Diego Garcia Otxandorena, Doneztebekoa, ekainaren 14an.

Ibai Azurmendi Sagastibeltza, Leitzakoa, ekainaren 11n.

Oinatz Mariezkurrena Balda, Leitzakoa, ekainaren 9an.

Sara Dorregarai Oiaregi, Elizondokoa, ekainaren 10ean.

Eneko San Agustin Irigoien, Elizondokoa, ekainaren 16an.

Enrique Jimenez Jimenez, Oieregiakoa, ekainaren 13an.

Manon Marie Michèle Mitxelena, Sarakoa, ekainaren 21ean.

Marie Itoiz, Sarakoa, maiatzaren 29an.

Iratz Udaeta Zubieta, Berakoa, ekainaren 24an.

HERIOTZAK

Juan Bautista Irigoien Etxabide, Lesakakoa, ekainaren 20an, 83 urte.

Claudio Manterola Irazoki, Igantzikoa, ekainaren 21ean, 85 urte.

Teofilo Gamietea Gubia, Iruritakoa, ekainaren 20an, 70 urte.

Michel Flosi, Sarakoa, ekainaren 15ean, 44 urte.

M^a Carmen Perugorria Luberriaga, Berakoa, ekainaren 21ean, 85 urte.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako **"Está creciendo"** liburua daukagu.

IRUNEN:  KUTXA



ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mogleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mogleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrira eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberrituak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - **LESAKA**

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak 112/088

Osasun Zentruak

Elizondo 452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka 637428 / 637336

Leitza 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea ... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua 246750

Virgen del Camino

Erresidencia 109400

Gurutze Gorria 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea 614600

Gipuzkoako ospitalea ... 460299

Erresidencia 453800

Anbulatorioak

Irun 630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz 450242 / 450805

DYA

Lesaka

(Larrialdiak) (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) 171717

FUNERARIA

Doneztebe 450475

Elizondo 580924

Lesaka 637404

Suhiltzaileak

Oronoz-Mugairi 592255

Garraioak

Bidasotarra 631150

Baztanesa 580129

Leitzaran 515018

Aberiak:

Iberdrola 450335 / 450336

1996ko Frantziako Tourrak hainbat kilometro eginen ditu lurralde hauetan barrena

Izpegiko gainetik sartuko da, Otxondoko gaina ere igaroko du eta Sarako SantIgnaze lepotik Hendaia aldera joanen da tropela

Uztailaren 18an Frantziako Tourrak hainbat kilometro eginen ditu gure eskualdean barrena, Iruñea eta Hendaia elkartuko dituen 18. etapan, hain zuzen.

Etapak 150 kilometro izanen baditu, erdia baino gutxiago TTIPITTAPAREN eremutik igaroko da, Erratzu aldeetik (Izpegiko gaina) sartu eta Saratik ateraz (Sant Ignaze lepoa). Tartean, Otxondo ere pasatuko dute.

BIGARREN ALDIA

Ez da lehenbiziko aldian Frantziako Tourra eskualdetik igarotzen dela. 1992ko edizioan, Lesakako Agiñatik sartu eta Izpegitik atera zen eta izugarrizko ikusmina sortu zuen.

Orduan, hasierako erlojupekoaren ondoko lehenbiziko etapa zen. Oraingoan, ordea, 18. etapa izanen da eta



jendea nekatu xamarra ailegatuko dela pentsatzekoa da. Miguel Indurainek, Nafarroatik igaroko diren bi etapen berri jakin zuenean "bukaeratik hain hurbil egotean, agian dena erabakia egonen

da eta ez da borroka haundirik izanen" adierazi zuen. Ikuskizuna, halere, segurtatua dago eta jendea multzoka pilatuko da errepide bazterretan.

Bertzalde, Baztan-Zugarramurdiko Eus-

kal Herrian Euskaraz taldeak adierazi duenez, euskal lurraldeetan Tourrakerabiliko dituen bide-seinaleak euskaraz idatziak izanen dira, baita Radio Tour-ek egiten dituen eman-kizunetan ere.



KIROLAK ZELA

Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...

Aritzondo (Bergara auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • **ELIZONDO**

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iraxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

muñeca de Trapo



IRUN

Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

Patxi Etxeberria doneztebarrak Nafarroa eta Euskadiko erremonte txapelketetan irabazle

Martin Lekunberri aurrelari zuela, aise nagusitu zen Iruñeko Euskal Jai eta Hernaniko Galarretan jokaturako finaletan

San Juan egunean hogeitahameka urte bete berri dituen Patxi Etxeberria doneztebarrak bere maila onenera ailegatu dela erakutsi du. Martin Lekunberri aitzin koadroetan zuela aisa irabazi ditu Nafarroa eta Nafarroa eta Gipuzkoako txapelketa artean jokaturako bi txapelketak.

Nafarroakoan errex irabazi zuten finala ekainaren 16an Iruñeko Euskal Jai frontoian, Elizalde eta Lizasori 40-22 irabazi baitzuten. Astebete beranduago, Hernaniko Galarretan Gipuzkoako txapelketa izan ziren Imanol Altuna eta Jokin Etxabe gazteen kontra jokatu zuten finala eta hemen ere beraien nagusitasuna erakutsi zuten.

Partidu guzian ai-



Martin Lekunberri eta Patxi Etxeberria Galarretan Euskadiko txapelketa irabazi ondok

Diario de Noticias

tzinetik izan ziren nafarrak, 1-1, 6-6 eta 29-29 berdinketetan ezik.

Etxeberria sendo ibili zen gibelaldean eta partehartze bikaina izan zuen. Lau tantu

egin zituen saketik eta bi falta egin zituen.

SAN FERMIN TXAPELKETA

Bikote hau izanen da dudik gabe, San

Fermin Sariketarako faborito nagusia.

Lau bikote arituko dira, "gaur egun forma onenean dauden zortzi erreumontelarien artean" Juan Antonio

Ertzilla intendentearen erranetan.

Honela, Martin Lekunberri eta Etxeberriarekin batera, Ezkurra-Urretabizkaia II, Elizalde-Agerre eta Altuna I-Angel Lekunberri arituko dira.

Txapelketa bi finalerdiekin hasiko da, uztailearen 9 eta 11n jokaturako direnak. Finala berriz, uztailearen 13 edo 14an jokaturako da, Euskal Telebistaren erretransmisio programaren arabera.

ERREMONTA GAUARDIAN

Bertzalde, Sanferminen barnean, uztailearen 9an, gaueko 12etan erremonte festibala izanen da. Ezkurra-Zandio, Matxin-Eizagirrearen kontra arituko dira.

Andres Martinez eta Maika Ariztegi nagusi Doneztebeko Herri Crossean

Andres Martinez eta Maika Ariztegi ituren-darra suertatu ziren irabazle ekainaren 23an Donezteben burututako Crossean.

Gizonezkoetan, hiru lehenbizikoak hamar segunduren barnean sartu ziren. Andres Martinezek 26'01" behar izan zituen ibilbidea bukatzeko, Tomas Garciak 26'05" eta Josetxo Vaquerizok 26'10". Maika Ariztegi erre-xago irabazi zuen, 2' eta 12"ko aldea atera

baitzian Rosa Orofinori eta 5' 20", hiru-garrena izan zen Ana Zelaletari.

Beteranoetan Angel Turrillas nagusitu zen.

PARTEHARTZE HAUNDIA MAILA TTIKIENETAN

Maila ttikienetan honako hauek izan ziren irabazleak:

Jubeniletan, Elizondoko Iñaki Telletxea.

Infantiletan, Almandozko Garikoitz Atxa mutikoetan eta

Doneztebeko Pilartxo Mitxeltorena nesketan.

Alebinetan, Berako Karlos de la Fuente eta Sunbillako Maria Sarratea.

Benjaminetan, Doneztebeko Iban Santesteban eta Urrozko Ana Matxiñena eta **aurre-benjamin** mailan, Doneztebeko Pascual Bertiz eta Jaione Ordoki suertatu ziren irabazle.

Proba Erreka elkar-teak antolatu du, Doneztebeko Udalaren laguntzarekin.

Hamabostaldiko Jokaldiak



Herriartekopilota txapelketa.

Txaruta, Goizueta eta Leitza Nafarroako Interpueblos txapelketaren finalerdietan sartu dira. Beraz, uztailearen 13an Iruñeko Labrti pilotalekuan jokaturako den finalean ordezkari bat izanen dugu, bederen.

Bortzirietako futbito txapelketako lesioak.

Aunitz izan dira aurtengo txapelketan mina hartu duten jokalariek eta bakarren batek lesio handia izan du. Joku gogorrik ez da izan, baina komeni da ongi berotuta atezratzea gisa honetarako partiduetara.

Doneztebek Baztan-Errekako laxoa zapela jantzi du hamargarren aldiz


Ekainaren 23an Iruritan jokaturako finalean 9-5 irabazi zion herriko taldeari

Doneztebeko taldeak bere nagusitasuna erakutsi du Baztan-Errekako laxoa txapelketaren hamazazpigarren edizioan eta txapela irabazi du, ekainaren 23an Iruritan jokaturako finalean Iruritari 9-5 irabazi ondotik. Doneztebek hamargarren txapela eskuratu du hone-la, horietatik zortzi gaur egungo laukoteak -Javier Mariezkurrena, Pello Iribarren, Luis Miguel Apezetxea eta Patxiku Ganboa- jantzi dituelarik. Iruritako taldeak ere, azken urteotako laukotea plazaratu zuen, hau da, Jose Javier Bertiz, Jose Javier Elizainzin eta Jaime eta Alfredo Garate bixkiak.

Hirugarren eta lau-garren posturako lehian Arraiozko taldea gailendu zitzaion Oitzi, 8-5 irabazten ari zirela Bittor Ansok zurmion-mina hartu baitzuen.

Partiduak ikusten Jose M^a Salanueva (Nafarroako Federazioa), Pello Urtasun (Euskadiko Federazioa), Mikel Eizagirre (Nazioarteko Federazioa) eta Josetxo Iraundegi (Pilotarien Batzarra) izan ziren.

Epaile lanak Javier Mariñelarena *Mariñe*, Juan Mari Artazkoz eta Txuma Primek bete zituzten eta Andres Elizainzin izan zen marrazaina. Partiduen ondotik bazkaria izan zuten Olari jatetxean.



Goikaldeko argazkian, laxoa txapelketako hamazazpigarren edizioko finalistak, Laxoa elkarteko arduradunak eta pilota federazio eta elkarte ezberdinetako ordezkariak. Lerro hauen gainkaldean, Mariezkurrena Doneztebeko sakalaria, hasierako jokaldia egiten, Iruritako plazan bildutako jendearen begiradapean

Argazkia: Ondikol

Eskualdeko hiru herri Nafarroako Herriarteko txapelketako finalerdietan

Eskualdeko herrietako pilotariak sekulan lortu ez den arrakasta eskuratu dute Nafarroako Herriarteko edo Interpueblos txapelketan. Izan ere, finalerdia jokatu dituzten lau herrietatik hiru (Leitza, Goizueta eta Malerreka eta Baztango pilotariak biltzen dituen Txaruta elkarte) eskualdekoak izanen dira.

Finalerdi batean Goizueta eta Txaruta taldea arituko dira norgehiagokan eta bertzean, ustekabean Oberena taldea kanporatu duten leitzarrek Lizarra, gaur egungo txapelkunaren kontra jokatu dute.

Beraz, biak ez badira, ordezkari bat izanen dugu bederen uztailaren 13an Labriten jokatu den finalean.



❖ Udako Saskibaloiko Kanpusa Lekarozen

Nafarroako Saskibaloiko Federazioak, Nafarroako Gobernu Kiroleta Gazteriaren laguntzaz antolatutako Udako Saskibaloiko Kanpusaren bederatzigarren edizioa burutuko da Lekarozen abuztuaren 16tik 25era. 10 eta 15 urte bitarteko nerabeei zuzenduko zaie kanpusa eta izen ematea zabalik dago Nafarroako Federazioaren 107872 eta 228702 telefonoetan. Pentsio osoarekin 25.000 pezeta gostako da eta 13.000 pezeta pensio erdian.

❖ Ezkurra Memorialaren

VI. edizioko finalak larunbat honetan, uztailak 6, jokatuko dira, Nafarroako Herriarteko txapelketaren finalerdia jokatu behar izateak horretarako oztoporik suposatzen ez badu behinpein. Txaruta elkarteak antolatutako txapelketa honetan 140 bat pilotari aritu dira, zazpi maila ezberdinetan.

❖ Bortzirietako futbito

txapelketaren finala jokatu behar zen larunbat honetan. Guztira 15 taldek parte hartu dute Beti Gazte elkarteak antolatutako txapelketan. Hurrengo alean emanen dugu finalaren berri.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

LESAKA

► **Uztailaren 5etik 10era** Xehetasunak aparteko gehigarrian.

AZPIILKUETA

► **Uztailaren 5etik 8ra** Xehetasunak 25. orrialdean.

ZINEA

ELIZONDO

► **Uztailaren 8an** 'El ladrón de Bagdad' filmea euskaraz.

► **Uztailaren 9an** 'Jumanji' filmea

► **Uztailaren 10ean** 'El libro de la selva, la aventura continua' filmea.

Emanaldi guziak Elizondoko Merkatu Plazan izanen dira gaueko 10,30etan. Antolatzailea Balleko Etxea Arte eta Kultura kanpainaren barnean.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► **Uztailaren 8tik 30a artio** Baztango Artisauen eskulanak erakutsiko dira Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.

► **Uztailaren 24tik 30a artio**

'Oroimenerako irudiak, Elizondo 1916-96' erakusketa zabalduko da. Antolatzailea Elizondoko herria.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Meloi musse-a



Javier GARCIA

Koxkonta Jatetxekoa • LESAKA •

Osagaiak 6 pertsonendako

- 2 meloi, bakoitza 500 gr.koa
- 4 arraultze • 300 zl. esnegain
- 2 jelatina • 175 gr. azukre • Oporto kopatxo bat •

Prestatzeko modua

Meloiak zatitu eta hustu. Meloi mamia birrintu eta azukrea eta oportoarekin nahasi. Ontzi batean arraultze xuringoak eta gorringoak altxatu. Bertze ontzi ba-

tean esnegaina ere altxatuko dugu.

Jelatina ur pixka batean beretzen jarri, eta beratu denean, irakiten dagoen esne pixka batean urtuko dugu. Jelatina urtua meloi mami, azukre eta oportoarekin nahasi. Segidan arraultze zuringoak eta gorringoak gehitu, eta azkenik, esne gaina. Den dena ongi nahasi eta nahi

dugun molde edo moldeetan bota. Hozteko, hozkailuan sartuko dugu gutienez bi ordu. Dena dela, denbora hau moldeak duen tamainaren arabera izan da.

BASERRIA



ZERRIKIA

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.300 pzta.
- **Zerri gizona** (95-100): 230pzta/kilo
- **Zerramak**: 120-130 pzta./kilo bizirik.



BEHIKIA

- **Aretze gizenak**
- **Idixkoak**: Pzta./kg. Kanal Extra 540
- 1.koa 510
- 2.koa 480

- **Urruxak**: Pzta./kg. Kanal Extra 550
- 1.koa 520
- 2.koa 480
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Nabarrak: urruxak 18.000 eta idixkoak 27.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 27.000 eta idixkoak 35.000 Pzta.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 360 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



FRUTONDOAK

- Hiru urteko landare bakoitza
- **Bertako sagarrondoa** 950.
 - **Udareondoa** 950 pzta.
 - **Gereziondoa** 1.050 pzta.
 - **Aranondoa** 1.050 pzta.
 - **Muxika** 880 pzta.
 - **Urritza** 880 pzta



LANDAREAK

- **Porruak** zientoa 400.
- **Tipulak** zientoa 800.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



ZALAIN
J A T E T X E A

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa
☎ 63 11 06
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoazgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.

Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55
BERA

KONTSUMITZAILEENDAKO AHOLKUAK

Zura jaten duten intsektuen kontrako tratamenduak

Mobleak egiteko, zoletan jartzeko, etxegintzan... erabilera haundikomateriala da zura. Izan ere, beste materialekin konparatuz eskeintzen dituen abantailak haundiak dira. Halabaina, jatorri naturalekoa izateagatik, faktore zenbaitekin hondatzeko arriskua du zurak:

Kanpokoak: Kanpoko faktoreen artean hezetasuna, sua, eguzkia eta tenperatura aldaketak diren aipagarrienak.

Biologikoak: Faktore biologikoen artean intsektuak eta zura janean bizi diren onddoak daude. Berez, zura jaten duten intsektuak asko dira (xilofagoak). Inguru honetako intsektu arruntenen artean bipiak, sitsak, *Hylotrypeak* eta termitak topatuko ditugu.

SORTZEN DITUZTEN KALTEAK

Kalteak tikiak izaten dira hasieran, baina ez bada inolako tratamendurik egiten, etxea lurrera erortzeraino kaltetzen ahal dute zura. Zentzu horretan, bi di-

**Bipiak,
termitak
eta onddoen
kontra**



Termitak ikustea erraxagoa da apiril, maiatz eta ekain aldean, kabietatik ateratzen direnean. Duten itxuraren arabera, hegalak dituzten zinaurri edo txingurriekin nahasten ahal dira.

ra intsektu hauek erasotzeko moduak:

Termitak: Zinaurrien antza dute eta kabiak lurpean egiten dituzte. Zuraietara lurra ukitzen duen zur zatietatik sartzen dira. Pixkanaka, mamia jan eta zuloak egiten dituzte, azkenean, zura arras hondatuz. Apiril, maiatz eta ekain aldean ikusten ahal da hauen arrastorik.


Bipiak eta beste intsektuak: Hauek ez dute kabirik egiten termitak bezala. Zuraietako arraidura eta zirikietan arrautzeak jartzten dituzte eta hoietatik sortzen direnkumekiek jaten dute zuren mamia. Nahiko hazi direnean, udaberri eta uda partean, kanpora ateratzen dira zulotxoak eginez.

NOLA JAKIN ZURA KALTETUA OTE DAGOEN?

Arrastoak begiratzuz: zuloak, zerrautsa, soinuak zuraren barnean... Horrela bada, zurai osoaren tratamendua egin behar da. Horretarako, komeni da esperientzia eta segurantza ematen duen enpresa batekin harremanetan jartzea. Garestiak izaten dira.

*Arrastoak ikusi
bezain abudo komeni
da zurarendako
zaintze eta sendatze
tratamendua
martxan jartzea.*

Bipi, termita, sits eta beste intsektuen kontrako tratamenduak egurrezko egituretan.
Aholkularitza teknikoak: espezieen identifikazioa eta proiektuak egiten ditugu.



Tel. (948) 13 05 26
Ezkazabal Plaza, 8 - 2.B
31600 BURLATA
Tel. (943) 3712 04
Buenos Aires aldapa, 12
20160 LASARTE

Tratamendu garantizatuak • Aurrekontua konpromezurik gabe

GUARDIAKO BOTIKAK

► Uztailaren 1tik

7ra Arantza, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

► Uztailaren 8tik

14ra Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► Uztailaren 15etik

21era Lesaka, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

OITZ. Txaleta salgai. ☎ 450227.

BERA. 89 m²ko pisua salgai, Iturlandeta, 6 - 2. solairuan, 'Molinero' blokeetan. Prezio negoziagarria. ☎ 630455.

Borda salgai, Leitza inguruan. Prezio negoziagarria. ☎ 306502.

BARAÑAIN. Pisua alkilerrean emanen nuke, bi lagunendako, Iparraldeko Plaza Etorbidean. ☎ 188271 (Roxa, goizeko 9etatik arratsaldeko 5etara).

LESAKA. 90 m²ko pisua eta kotxea sartzeko moduko bajera salgai. ☎ 637306 (Arratsetan).

ELIZONDO. 110 m²ko pisua salgai. ☎ 580956.

ELGORRIAGA. Etxe polit bat salgai. ☎ 908.778653

DENETARIK

Brontzeko lanpara salgai, 6 besokoa. ☎ 637787.

Giltza sorta bat galdut Lesakan ekainaren 22 edo 23an. ☎ 637132.

Moble erabiliak edo antzinakoak erosiko nituzke. Baita gurdi gurgilak eta nekazal tresnak ere. ☎ 234830 (Agirre jauna).

Grundig **telebista** salgai,

25 pulgadakoa. ☎ 637217.

Poltsa galdut Lesakan. Barnean labana ttiki bat, erlojua, irratia eta anteojoak zituen. ☎ 637304 (eguerdi edo arratsetan).

Madrileko AC/DCren kontzerturako sarrera salgai, prezio berdinean (3.500 pezeta). ☎ 635290.

Organo handia Kawasaki markakoa salgai. Ehun soinuz ezberdin. ☎ 630418.

Elgorriagako bainuetxea ezagutu, lan egin edo istorioren bat konta diezadaketan pertsonen bila nabil. ☎ 943.285729.

AZIENDAK

ALBAITERITZA KLINIKA

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
☎ 627660 LESAKA



Husky siberiar arrazako txakur arra salgai, urtebetekoa. Jendearrekin ongi hezia. 45.000 pezetatan. ☎ 514040.

Behorra salgai, arraza garbikoa. ☎ 637951.

Griffon Korthal arrazako zakurra salgai, 6 hilabete-koa, ama eta aita oilagor ehiztariak. ☎ 599114 (arratseko 9etatik 12,30etara).

IBILGAILUAK

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Suzuki luze bat, Land Rover Ligeru, Laburra eta Luzea. Kotxeen tapizeriak garbitzen dira eta ezkontzetarako prestatzen dira.

Rieju MR80 motoa salgai, egoera onean. ☎ 635196.

Nissan Vanette, NA-AC, gasoilezkoa, salgai. Prezio hagitzu onean. ☎ 631270 (uztailaren 23tik aitzinera).

Audi SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

LANA

Trikitixa jotzen dugun bikote goizuetarra gara. Zure ospakizunetara joateko prest gaude. ☎ 514040.

42 urteko emakume batek lan eginen luke etxeak edo bulegoak garbitzen, umeak edo adineko jendea zaintzen. Euskalduna, Malerreka aldean. ☎ 306502.

Solfoe eta akordeoi klaseak emanen nituzke uda partean. ☎ 635045.

Neska batek uda partean

lan eginen luke Bortzirietan, haurrak zaintzen. ☎ 637179 (Amaia, 8etatik aitzin).

Iturenen piano, solfeo eta teklatu klaseak ematen dira. Esperientziaduna. ☎ 450249 (Garbiñe).

Berako neska batek udan haurrak zaintzen lan eginen luke. ☎ 631354 (Viki).

DONEZTEBE

AKADEMIA

INFORMATIKA IKASTAROAK

- Windows
- Testu Tratamendua
- Kalkulu Orria
- Datu Baseak

Udan, ikastaro Trinkoak

☎ 451841 • 908-778653
Parrokia 5, 2.
DONEZTEBE

Urdazubiko Ikaburua jattetean neska behar da uztailaren 15etik abuztu ondarreraino. ☎ 599222.

Neska euskaldun batek lan eginen luke haurrak zaintzen. Esperientziaduna. Lesaka edo inguruetan. ☎ 637226 (Miren).

AGURRAK

Urdazubiko Arantxa Alzuyet-i: zorionak zure urtebetetze egunean (ekainak 17). Zure lagunak.

Anizko Ainhoa eta Fer-

mintxori: zorionak zuen 18. urtebetetzean. Zuen afarira gonbidatzearen zai gaudere. Anizko lagunak.

Nerea Gonzalez-i: hemen ez egon arren aunitz gogoratu gara zutaz. Muxu handi bat. Aniz eta Berroeta. Ongi etorri.

Elgorriagako Koro Ibarri: zorionak urtebetetze egunean (uztailak 5). Elkarrekin ospatzea espero dut. Muxu handi bat zure koinataren partez. Edurne.

Elizondoko Xabi Urrutiari: arras majua zara eta espero dut noizbait elkarrekin ateratzea. Zuk dakizun neska baten partez.

Eixabet Sukilbideri zorionak urtebetetze egunean (uztailak 10). Muxuak. Edurne.

Berako Toki Onako 2. ESOk A klasekoek Mikel Irigoien eta Andoni L.r.: ez joan Beratik.

Arraiozko Ana Oteizari: zorionak zure urtebetetze egunean (ekainak 20). Arraiozko zure lagunaren partez.

Aitor Rementegiri zorionak (uztailak 2). Ongi pasatu. Herrikoak.

Berako Iker Martiarenari: nigan lagun handi bat duzula eta konfidantza izan dezazula nahi dut. Barkatu gertatu denagatik eta egin dizudan minarengatik. Askok



RUIZ MOBLEAK

Amezti-Merkatari 16
Tel. 45 01 10
DONEZTEBE

KOLTZOIDENDA BERRIAK

Koltxoak, arko eta kajoidun somierrak, tolesgarriak, artikulatuak eta erriendako egokiak

ZABALPEN ESKAINTZAK
7.000 pta bitarteko aurrezpena

FLEX BANATZAILE OFIZIALA



ZUENDAKO MOBLEAK

Jaime Urrutia 36
Tel. 58 02 02
ELIZONDO



Lesakako
Udalak
besta
zoriontsuak
opa
dizkizue
Lesakar
eta bisitari
guziei

S
A
N

F
E
R
M
I
N
A

1
9
9
6



Don't forget to...



**BESTA
ZORIONTSUAK !!**